

**Itsasertza antolatu eta babesteko Lurraldearen Arloko
Planaren Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioari
buruzko Azterlana**

AURKIBIDEA

1	PLANAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK.	4
1.1	JARDUN-ESPARRUAREN DESKRIBAPENA.	5
1.2	PLANAREN DENBORA IRISMENA.	7
1.3	PLANAREN HELBURUAK	7
1.3.1	<i>Helburu orokorrak</i>	8
1.3.2	<i>Helburu zehatzak</i>	8
1.3.3	<i>Lurraldearen Arloko Planaren helburuen eta Ingurumeneko Esparru Programaren helburu eta irizpideen arteko bateragarritasuna</i>	9
1.4	AINTZAT HARTUTAKO AUKERAK	11
1.5	PLANEAN BILTZEN DIREN JARDUNEN LABURPENA.	16
1.6	BESTE PLAN BATZUETAKO ARTEZTARAUAK ETA IRIZPIDEAK AINTZAT HARTU, INTEGRATU ETA GARATZEN DITUZTEN ZEHAZTAPENEN LABURPENA	27
1.7	INPAKTUAK ERAGIN DITZAKETEN JARDUNAK IDENTIFIKATZEA.	29
1.8	PLANA GAUZATZEKO FASEAK.	30
1.9	HAUTEMAN DIREN INFORMAZIO-HUTSUNEAK.	30
1.10	PARTE-HARTZE PUBLIKOA.	32
2	BESTE PLAN ETA PROGRAMA BATZUEKIKO ELKARRERAGINEN AZTERKETA.	33
3	PLANAREN ERAGINPEAN DAGOEN ESPARRUAREN INGURUMEN ARLOKO AZTERKETA, DIAGNOSTIKOA ETA BALORAZIOA	34
3.1	AZTERGAI DEN ESPARRUAREN DEFINIZIOA	34
3.1.1	<i>Itsasertzeko espazioaren definizio administratiboa.</i>	34
3.1.2	<i>Irizpide teknikoak</i>	35
3.1.3	<i>Aztergai den esparruaren definizioa</i>	36
3.2	BALIABIDE NATURALEN ETA LURZORUAREN EGUNGO ERABILEREN APROBETXAMENDUA.	39
3.3	PLANAREN ERAGINPEAN DAUDEN INGURUMEN-ALDAGAIK	39
3.4	INGURUMEN-BALIABIDEEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA	39
3.5	INGURUMEN-UNITATE HOMOGENEOEN DEFINIZIOA ETA INGURUMEN-DIAGNOSTIKOA...	40
3.5.1	<i>Estuarioak.</i>	40
3.5.2	<i>Antolamendu-ereduaren edo plangintzaren ondorioz lurraldean sortzen diren eraginak.</i>	45
3.5.3	<i>Azpiegituren arloan aurreikusten diren jardunen diagnostikoa</i>	51
3.5.4	<i>Lehorreko ingurunearen gainean eragina duten esku-hartzeen laburpena eta balorazioa.</i>	53
3.5.5	<i>Espazio natural babestuen edo katalogatuen diagnostikoa.</i>	55
3.5.6	<i>Itsas ingurunearen diagnostikoa</i>	56
4	INPAKTUEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA	58
4.1	PLANAREN HELBURUEK INGURUMENAREN GAI NEAN IZAN DITZAKETEN ERAGINEN AZTERKETA.	58
4.2	PLANAREN JARDUNEK SOR DITZAKETEN ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA	59
4.2.1	<i>Inpaktuak identifikatzea eta aurreikustea</i>	60
4.2.2	<i>Inpaktuen deskribapena</i>	63

5	NEURRI BABESLEEN, ZUZENTZAILEEN ETA KONPENTSATZAILEEN PROPOSAMENA.	66
5.1.1	<i>Beheragoko mailako planak edo programak diseinatzeko irizpide eta arteztarau orokorrak.</i>	66
5.1.2	<i>Ondoriozko ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioetan edo ebaluazio bereizietan sartzeko irizpideak.</i>	66
6	PLANAREN ERAGINEN IKUSKAPEN-PROGRAMA.	68
6.1	KONTROL-HELBURUEN DEFINIZIOA.	68
6.2	JARRAIPENAREN MENDE EGON BEHAR DUTEN ETA ERAGINPEAN DAUDEN INGURUMEN ARLOKO SISTEMEN, ALDERDIEN EDO ALDAGAIEN IDENTIFIKAZIOA.	68
6.3	ADIERAZLEEN JARRAIPENERAKO BEHARREZKO DATU KUANTITATIBOAK ETA KUALITATIBOAK FINKATZEA.	69
6.3.1	<i>Uren Kalitatea.</i>	69
6.3.2	<i>Kontserbaziorako balio handiko zonak eta Babes Berezia eta Ingurumen Hobekuntza kategoriak zaintzea.</i>	69
6.3.3	<i>Estuarioak eta haien ertzak zaintzea.</i>	69
6.3.4	<i>Jardun-programako administrazio jardunak egitea</i>	70
6.3.5	<i>Jardun-programako azpiegiturak egokitzeko jardunen garapena</i>	70
6.3.6	<i>Jardun-programako baliabide naturalak babesteko eta hobetzeko jardunen garapena</i>	71
6.3.7	<i>Jardun-programan biltzen diren erabilera publikoa sustatzeko jardunen garapena</i>	71
6.3.8	<i>Jardun-programan biltzen diren ikerketa zientifikoko jardunen garapena.</i>	72
6.4	PARAMETRO KUANTIFIKATZAILEETARAKO ERREFERENTZIAZKO EDO MUGAKO MAILAK EZARTZEA.	72

1 Planaren helburu estrategikoak.

Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legea da Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldearen antolamendu-politikaren esparru juridikoa. Lege horren artikulua gehienak lurralde-antolamenduko tresnen inguruan garatzen dira, eta oso gutxi dira xedapen orokorrak.

Lurralde-antolamenduko tresnak II. Tituluan erregulatzen dira. Horrela definitzen dira Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak (LAA), Lurraldearen Zatiko Planak (LZP) eta Lurraldearen Arloko Planak (LAP).

Legeak gainerako tresnak formulatzeko erreferentziazko esparru orokor gisa jotzen ditu **Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak**. Horrela, honako dio 4. artikuluan: *“Lurralde Antolakuntzarako Artezpideak izango dira Lege honetan araupetzen diren gainerako antolabideak aurkezteko abiapuntu nagusi, eta halaber lur-jaurpideei buruzko legeetan oharmandako antolakuntza egitamuentzat ere.”*

Eusko Jaurlaritzak edo Foru Aldundiek arloko plangintzarako landu dituzte Lurraldearen Arloko Planak, eta lurralde-eragina dute; nolanahi ere, lurralde-ikuspegi integratzailetik sustatu dira, eta Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek eta Lurraldearen Zatiko Planek ezarritako zehaztapenak errespetatuko dituzte. Arloko plan hauei buruzko III. Kapituluak oso orokorrean definitzen du horien egitekoa, *“gaia”*k zehaztuko du egitekoa, *“Artezpideek zein horien garapenerako egin daitezten Lurraldearekiko Zati Egitamuek zehaztutako lurralde-esparruan, hasiera-hasieratik, ahalik eta egokien sartzea bermatu ahal izateko”* (17. artikulua). Nolanahi ere, ahaleginak egin beharko dira lurralde-plangintzako gainerako tresnekin bateragarri izateko. Beste tresna batzuen gaineko nahitaezko aldaketak edo zuzenketak salbuespenezkoak izango dira (17. artikulua).

Testuinguru horretan, idatzi zituen Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak –otsailaren 11ko 28/1997 Dekretu bidez behin betiko onartu zirenak (1997ko otsailaren 12ko EHAA)–.

“Ingurune fisikoari” dagokionez, antolamendu kategorien inguruan konfiguratzeko da Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetako jardun-proposamena. Harrera-ahalmenaren arabera definitzen diren sektore homogeneoetan zonabanatzen dira, eta horietako bakoitzari haren berariazko erabilera-erregulazioa aplikatzen zaio. Hiri-plangintzak lurzoru urbanizaezina kalifikatzean erabilitako izendapenak bateratzeko asmoz egin da hori guztia, baita lurralde-plangintzan eta udal-plangintzan hori antolatzeko irizpide orokorrak ezartzeko asmoz, betiere lurzoru urbanizaezineko erabileren eta jardueren erregulazioa orientatuz.

Itsasertza antolatu eta babesteko Lurraldearen Arloko Planak, beraz, bere egiten ditu Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek sustatutako antolamendu-ereduaren lurralde-inplikazio orokor guztiak, eta, zehazki, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek lurzoru urbanizaezinean ezartzen dituzten antolamendu kategoriak.

Horrenbestez, eta Planaren helburuetako bat itsasertza irizpide erabilgarrien arabera zonabanatzea eta agertzen diren erabileren antolamendua integratzea denez gero (aurrerago jorratuko dira helburuak), Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetako irizpideak eta zehaztapenak jasotzeaz gain, sakondu egiten ditu Planak irizpide eta zehaztapen horiek. Horrela, funtsezko tresna bihurtzen da ingurune fisikoaren antolamenduari buruzko artezpidea garatzeko.

Lurralde Antolakuntzari buruzko Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan aditzera ematen denaren arabera, Lurraldearen Arloko Planak bere egiten ditu zati batean onartutako udalaz gaindiko plangintzako beste tresna batzuen (LZPen eta LAPen) zehaztapenak –behar bezala justifikatutako salbuespenak salbuespen–.

Edukiaren ikuspuntutik, Itsasertza antolatu eta babesteko Lurraldearen Arloko Plan honek bete egiten ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetako aginduak eta zehaztapenak, eta babestu egiten ditu izendatu diren (edo etorkizunean izendatuko diren) espazio natural babestuak, betiere ingurune fisikoaren artezpidean espresuki jasotzen den aginduaren arabera. Era berean, proposatutako antolamendu kategoriak ez ezik, ezarritako erabilerak eta jarduerak ere bat datoz lurralde-antolamendu horretan aurreikusitakoarekin. Nabarmendu egiten da baldintzatzaile gainjarrien balio nagusia, baita itsasertzaren berezko berezitasunak ere. Lurralde-antolamenduko edo hirigintza-antolamenduko beste tresna batzuk ere errespetatzen dira.

1.1 Jardun-esparruaren deskribapena.

Lurraldearen Arloko Plan hau egitea eragin duten arazoak itsasertzeko lurralde handi batean hauteman ditugun arren, Legearen eta Kosta Erregelamenduaren eraginpean zuzenean dagoen itsasertzeko zerrenda oso txikia da. Nolanahi ere, iritsiera handiagoko konfigurazio-irizpideak hartuko balira (geomorfologikoak, prozesuen eraginekoak, ekonomikoak, ingurumen unitate nolabait homogeneousak mugatzeko irizpideak, eta abar), mugatuko litzatekeen itsasertzeko zerrendak tarte batzuetan 3 kilometroko zabalera gaindituko luke. Zerrenda horretan, oso zaila izan daiteke udalaz gaindiko lurralde-antolamendurako hirigintza eta ingurumen arloko neurriak aplikatzea, eta kaltegarria izan daiteke beste plan batzuetan finkatzen den Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamendurako.

Hortaz, eta Planaren helburuen artean euskal itsasertza osoa ondare natural baliotsu gisa hartzeko helburua eta, ondorioz, jarduerak ezartzearen dinamikaren ondoriozko inpaktuak murriztuko dituzten babes-neurriak bideratzeko helburua kontuan izanik, aztertu eta definitu da antolamendu-lurraldea, eta egin da informazio eta diagnostikoko fasean definitutako lurralde-esparruaren diagnostikoa –horretarako Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko udalerrri guztiak barne hartzen dituen esparrua hartu da aintzat–.

Lehentxeago aditzera emandakoa aintzat hartuta, Kosta Legean definitzen den eragin-zona definitu da Lurraldearen Arloko Plan honen antolamendu-esparru gisa; “500 metroko gutxieneko zabalera duen zerrenda, itsas bazterren barruko mugatik neurtuta”. Zona hori, bestalde, ibaien ertzetatik gora hedatzen da, mareen eragina nabarmena den

lekuraino. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, itsas sestraren gaineko 5 metroko kotaraino hedatuko da.

Zerrenda horrek itsasertzeko prozesuetako eragin-zonak baino *antolamendu-esparru* txikiagoa du. Alabaina, behar bestekoa da itsasertzeko sistemaren gainean zuzenean eragina duten erabileren eta jardueren espazioaren antolamendua bermatzeko eta jardun horiekiko sentikorrek diren kostaldeko ekosistemen antolamendua bermatzeko.

Kosta Legean horrela hartzen da aintzat eragin-zona: plangintza-egileak hainbat jarraibide izango ditu zona horretan, babeserako zortasun-zonaren ertzean pantaila arkitektonikoak sor daitezen saihesteko edo espazio horietan hirigintza-antolamenduan komenigarritzat edo baliagarritzat jo daitezkeen konpentsazioak meta daitezen saihesteko. Hori guztia Autonomia Erkidegoek ingurumen arloan hartzen dituzten babes-neurri osagarrien kalterik gabe, edota Autonomia Erkidegoek eta Udalek lurralde-antolamenduko eskumenen barruan hartzen dituzten neurrien kalterik gabe.

Lurraldearen Arloko Plan honen lehorreko eta trantsizio-inguruneetako antolamendu esparruak, beraz, itsasertzeko zerrendatzat jotzen den espazioa hartzen du, eta, gutxi gorabehera, bat dator Kosta Legeak arautzen duen espazio administratiboarekin. Gainera, Legeak itsas-lehorreko espazioa hartzen du aintzat, eta halakotzat jotzen du berezko itsas espazioaren lur-zerrenda osagarria –Legeak itsas bazterra adierazpidea erabiltzen du, oro har–. Itsas-lehorreko espazio hori itsasbeherako linea eskoratuaren eta gehieneko itsasgoraren arteko espazioa da.

Era berean, informazio eta diagnostikoko dokumentuetan aditzera ematen den bezalaxe, argi eta garbi bereizten dira kostaldeko ur-bazterrak eta itsasadarretako ur-bazterrak, xehetasuneko ezaugarri fisiografikoen mailan ez ezik, zona horien ingurumen-egoeraren ikuspuntutik ere. Horrez gain, bi ur-bazter horietan oso bestelakoa da garapen sozio-ekonomikoaren maila eta jardueren ezarpena.

Laburbilduz, honela mugatu da Lurraldearen Arloko Plan honen antolamendu-esparrua:

- **Kostaldeko ur-bazterra:** lehorreko ingurunea eta itsas-lehorreko espazioa hartzen du, hau da, lehorreko ingurunea eta itsasbeherako linea eskoratuaren edo ekinozioko gehieneko itsasbehera biziaren eta ekinozioko gehieneko itsasgora biziaren arteko espazioa –hurrengo b) idatz-zatian deskribatzen diren zonak izan ezik–.
- **Itsasadarretako ur-bazterrak:** itsasadarren inguruko lehorreko ingurunea eta itsas-lehorreko espazioa hartzen du, ibaien bokaleetatik gora ibaien ertzetan barrena hedatzen da mareen eragina nabarmena den lekuraino. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, itsas sestraren gaineko 5 metroko kotaraino hedatuko da. Antolamendu-planoan itsasadarretako ur-bazterren eta itsasertzeko ur-bazterren arteko muga islatu da.
- **Itsas ingurunea:** marea azpiko ingurunea da, itsasbeherako linea eskoratuaren edo ekinozioko gehieneko itsasbehera biziaren eta 50 metroko isobataren artean dagoen zabalera aldakorreko zerrenda batek osatua.

1.2 Planaren denbora irismena.

IV. liburukiko –Araudia– 6. artikuluan zehazten denez, plan honek indarraldi mugagabea du, aldi baterako programazioaren eta berau berraztertzearen edo aldatzearen kalterik gabe.

7. artikulua, bestalde, Lurraldearen Arloko Plana berraztertzeko, aldatzeko eta eguneratzeko baldintzak zehazten ditu –betiere zortzi urte indarrean egon ondoren–.

1.3 Planaren helburuak

Honako oinarriak ditu Itsasertza antolatu eta babesteko Lurraldearen Arloko Planak:

- Antolamenduaren helburu den Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko esparrua definitzea.
- Babestu behar den itsasertzeko ondarearen inbentarioa egitea.
- Itsasertzaren sektORIZAZIOA egitea, bertan agertzen diren erabileren antolamendu integraturako irizpide baliagarrien bitartez.
- Itsasertzeko baliabide naturalak babestea eta kontserbatzea.
- Jabari eta sarbide publikoaren printzipioa babestuko duen erregelamentazioa ezartzea eta, aldi berean, eraikuntzez kanpo geratuko den itsasertzeko zerrenda finkatzea.
- Itsasadarrei dagokien itsasertzeko lurralderako berariazko antolamendua ezartzea.
- 196/1997 Dekretuaren arabera jaulki beharreko baimenak emateko jarraibideak definitzea –196/1997 Dekretua, abuztuaren 29koa, itsas-lehorreko herri-erabilerazko babes-zorpeko aldean erabilpenetarako eta lehorretik itsasorako isurketak egiteko baimenak emateko jardunbidea ezartzeko dena–.
- Itsasertzeko jardunen programa ezartzea, hala nola itsas-lehorreko jabari publikoaren gaineko eta horien zortasun-zonen gaineko jardunak eta koordinazio administratiboa, azpiegituren arloko jardunak, baliabide naturalen babesa eta hobekuntza, eta itsasertzaren erabilera eta itsasertzeko ingurumenaren jakintza areagotzea.

Aurretik adierazitako guztia kontuan izanik, Itsasertza antolatu eta babesteko Lurraldearen Arloko Planak lortu nahi dituen helburu orokorrak eta zehatzak finka ditzakegu:

1.3.1 Helburu orokorrak

Itsasertza antolatu eta babesteko Lurraldearen Arloko Planaren helburu orokorra da tokiko administrazioak zein udalaz gaindikoa administrazioek eta organismoek sustatutako lurralde-politikak eta hirigintza-jardunak integratzeko erreferentziazko oinarritzko esparrua ezartzea. Esparru horrek itsasertzeko ekintza estrategikoko ildo nagusiak zehazteaz gain, itsasertzean egin beharreko jardunen gehieneko eraginkortasuna eta sinergia lortzeko beharrezko zehaztapenak finkatuko ditu, betiere itsasertzaren beharrezko babesaren, kontserbazioaren eta hobekuntzaren ikuspegitik eta itsasertzak jasaten dituen erabileren arrazionalizazioaren ikuspegitik.

Esparru horretan, Plana honako helburu orokorrekin bideratu da:

- ◇ Itsasertzeko zerrendaren antolamendua definitzea, eta Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetako ingurune fisikoaren antolamenduaren artezpidea garatzea.
- ◇ Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko administrazioaren programak eta arloko planak bateragarri egin ahal izateko administrazio-koordinazioko programa zehaztea.
- ◇ Itsasertza leheneratzeko ekimenak eta hirigintza eta administrazio arloko ekimenak bilduko dituen jardun-programa integratua adostea, inplikaturako organismo eta erakundeen eskumen-erantzukizunaren ikuspuntutik ez ezik, planteatzen diren inbertsioen erantzukizun ekonomiko-finantziariorik ere.

1.3.2 Helburu zehatzak

Informazio eta diagnostikoko fasean egindako lurralde-diagnostikoan eta analisisan oinarrituta, honako helburu zehatzak ditu Lurraldearen Arloko Planak:

1. Euskal itsasertza, oro har, ondare natural baliotsutzat hartzea, eta berau babesteko neurriak arbitratzea –jarduerak ezartzearen dinamika handiaren ondoriozko inpaktuak murriztuko dituztenak–. Horretarako, behar-beharrezkoa da itsasertzeko eta kostaldeko ekosistemak mugatzea eta adieraztea lehorrean zein itsas ingurunean, baita ezaugarri naturalengatik (egungoengatik zein etorkizunengoengatik) kontserbatu eta babestu behar diren unitate geomorfologikoak eta paisajistikoak mugatzea eta adieraztea ere, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen babes bereziko zonei buruzko 6.8.1. arteztaraua garatuz.
2. Udal mailako planak lantzean aintzat hartu behar diren oinarritzko irizpideak, arteztarauak eta arauak gaineratzea eta indarrean dagoen udal mailako hirigintza-araudiari buruzko agindu eta arau nagusiak zehaztea. Lurzoru urbanizaezinerako arau lotesleak ezartzea, lurzoru urbanizagarrian dauden gatazkak agerian uztea, eta hiri-lurzoruko plangintzarako arteztarauak eta gomendioak ezartzea.
3. Planak haren aplikazio-esparruan proposatutako antolamendua bateragarri egitea kosta-legeriak ezartzen duen erabilera-erregimenarekin, itsas-lehorreko jabari publikoan eta babeserako zortasun-zonan.

4. Plana itsasertzeko lurralde-antolamenduko, ingurumen-antolamenduko edo antolamendu naturaleko gainerako tresnekin koordinatzea, hau da, Lurraldearen Zatiko Planekin, Lurraldearen Arloko Planekin (Inguru Hezeak, Portuak, Nekazaritza, Basoak eta Ingurune Naturala), Urdaibaiko Biotopo Babestuekin, Espazio Babestuekin, Natura 2000 Sarearekin eta Txingudiko Planarekin.
5. Plana Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planarekin (isurialde kantauriarra) koordinatzea itsasadarren esparruan.
6. Babes bereziko zonak adierazteko baliagarriak izango diren irizpide adostuak proposatzea Administrazio eskudunari, Kosta Legearen 22. artikulua eta haren erregelamendua aplikatzearren.
7. Itsasertzaren gainean eta haren lehorreko ingurunean diharduten administrazioen artean (administrazio zentralaren, autonomikoaren eta tokikoaren artean) lurralde eta hirigintza arloko jardunak egoki koordinatu daitezkeen lortzea, betiere aurretik bakoitzaren administrazio-eskumenak eta indarrean dauden koordinazio-mekanismoak errespetatuz.
8. Lurraldearen Arloko Plan honen *baliabide kulturalen eta naturalistikoaren inbentarioko* elementuen arauzko tratamendurako irizpideak gaineratzea.
9. Itsasertzeko hainbat eremu ingurumen arloan sentikorrak diren zonen katalogoan barne hartzeko irizpideak gaineratzea, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko 3/1998 Lege Orokorraren 51. artikuluan agertzen den definizioaren arabera.

Helburu horien guztien artean, 1., 2., 3., 6., 8. eta 9. helburuek dute garrantzi berezia ingurumen arloan.

1.3.3 Lurraldearen Arloko Planaren helburuen eta Ingurumeneko Esparru Programaren helburu eta irizpideen arteko bateragarritasuna

Euskal Autonomia Erkidegoko garapen iraunkorrari buruzko ingurumen-estrategia 3/98 Legean jasotzen da, eta, Lege horren seigarren artikulua ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-politika Ingurumeneko Esparru Programa batean gauzatuko da. Garapen iraunkorrari buruzko politiken nazioarteko testuinguruari jarraituz, Ingurumeneko Esparru Programa horrek epe luzerako plangintza estrategikoa garatu beharko du. Plangintza estrategikoa horrek erreferentzia baliagarria izan beharko du etorkizuneko eguneratzeetarako –lau urteko konpromisoak landuz bada ere–. Programa osoaren diseinuaren ardatza partaidetza izango da. Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparru Programa epe laburrerako hainbat helburutan egituratzen da. Helburu horiek hautematen diren egoeretara egokitzen dira, epe luzerako ingurumen-helburuei lotuta. Helburu horiek lortzeko balio kualitatiboak eta epe zehatzak esleitzen ditu, eta, hortaz, konpromiso zehatzak finkatzen ditu.

Ingurumeneko Esparru Programaren helburu nagusien artean hauek daude: hazkunde ekonomikoa, baliabideen erabilera eta hondakinen produkzioa bereiztea; habitat eta sistema naturalak babestea eta leheneratzea; eta biodibertsitatearen galera etetea.

Ingurumeneko Esparru Programak –natura eta biodibertsitatea babesteari buruzko 3. helburuaren barruan– lotuta dauden hainbat helburu ezarri ditu, eta horien artean nabarmentzen dira ekosistemen, espezieen eta paisaien kontserbazioa eta babesa, ekosistemak, espezieak eta paisaiak haien ingurune naturalean leheneratzea, eta biodibertsitatearen inguruko ikerketa eta sentsibilizazioa. Horretarako, epe laburrerako (2002-2006) hainbat konpromiso finkatu ditu, hala nola hainbat Lurraldearen Arloko Plan lantzea (Inguru Hezeak antolatu eta babesteko Lurraldearen Arloko Plana eta Itsasertza antolatu eta babesteko Lurraldearen Arloko Plana esate baterako). Itsasertza antolatu eta babesteko Lurraldearen Arloko Plan hau lantzeko konpromisoaz gain, Lurraldearen Arloko Planak bere egiten dituen beste konpromiso batzuk ere hartu ditu Ingurumeneko Esparru Programak:

- Natura 2000 sarean barne hartzen den azalera gehitzea eta Natura 2000 sarean barne hartzen diren espazioak babesteko, maneiatzeko eta leheneratzeko planak lantzea.
- Armañon, Aizkorri-Aratz eta Entziako Parke Naturalak izendatzea eta lehentasuneko interes naturalistikoko zonak babesteko berariazko irudiak zuzkitzea.
- Ingurumen arloan sentikorrak diren zonen katalogoa lantzea.
- Espazio Natural Babestuen Euskal Katalogoa lantzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko korridore ekologikoak ezartzea.
- Basoak antolatzeko planak lantzea, erabilera publikoko basoen iraunkortasunerako.
- Euskal Autonomia Erkidegoko naturari eta biodibertsitateari buruzko datuak biltzeko programa lantzea.
- Paisaiaren Europako Konbentzioaren printzipioak antolamendu-dokumentuetan txertatzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko paisaia berezien eta bikainen zerrendan dauden espazioak babesteko eta leheneratzeko plan bereziak ezartzea, lurralde-antolamenduan egoki barne har daitezen bideratuz.
- Espezie exotiko kolonizatzaileak edo inbaditzaileak kudeatzeko planak lantzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko egitura naturala kartografian definituko duen arauzko esparrua sortzea.
- Ingurumen-eragin handiko paisaia degradatuak leheneratzeko urteko jarduerari eustea (harrobiak, zabortegeak, meategi-eremuak, eremu higatuak...).
- Habitaten Arzetarauko I. eta II. Eranskinen lehentasuneko eremuak ordezkatzeko urteko jarduerari eustea (hezeguneak, ur-bazterrak, dunak, korridore ekologikoak).

Lurralde-orekari eta mugikortasunari buruzko laugarren xedearen barruan, eta berau garatzen duten jomugen bitartez, lurralde orekatuagoa eta irisgarriagoa finkatu nahi da. Gauzak horrela, interes orokorreko jarduera sozialen eta ekonomikoen bideragarritasuna bermatuko da, eta, aldi berean, landa, hiri eta itsasertzeko eremuetako ondare, aniztasun, aberastasun eta erakargarritasun naturala eta kulturala bermatuko da. Lurraldearen

erabilera iraunkorra lortzeko honako konpromiso hauek planteatu dira –Itsasertza antolatu eta babesteko Lurraldearen Arloko Planaren ere agertzen direnak–:

- Jarduera sozio-ekonomikoen lurraldean duten banaketa orekatua eta kokapen espaziala hobetzea.
- Landa-espazioa eta espazio naturala balioz horni daitezen sustatzea.
- Nekazaritza-sektoreko produkzio integratua sustatzea.
- Kostaldeko/itsasertzeko eremuak modu integralean eta iraunkorrean kudeatzea.
- Hiri-plangintza lurralde-antolamenduko tresnetako helburuetara eta iraunkortasun-irizpideetara egoki dadin sustatzea.
- Ingurumeneko Esparru Programan jasotzen diren iraunkortasuneko helburuak eta konpromisoak barne hartzea udal mailako hiri-plangintzetan eta lurralde-antolamenduko beste tresna batzuetan.

1.4 Aintzat hartutako aukerak

Itsasertza antolatu eta babesteko Lurraldearen Arloko Plana berezia da beste lurralde-plangintzen aldean; izatez, haren helburu nagusia da balio jakin bat izateagatik babes-tresna hau behar duten ingurune naturaleko elementuak babestea.

Helburu hori hainbat modutan lor daiteke, baina bi modutara laburbil daiteke:

- Elementu isolatuak babestea, modu independentean aintzat hartutako ingurune aldagaien arabera.
- Osotasunean kontserbatzeko balio jakin bat duten zonak babestea.

Hasiera-hasieratik ikusi zen bigarrena zela metodorik egokiena; izatez, aldagai jakin batzuetako elementu isolatuak balorazio egokiarekin babes daitezke eta, gainera, balio handiko ezaugarri isolaturik ez duten eremuak ere babes daitezke –azken kasu horietan ezaugarri guztien batura dela-eta, merezi du eremu horiek babestea–.

Horrez gain, metodo horri esker, jardueren onargarritasuna mailaka daiteke, zona bakoitzaren babes-eskakizunei jarraituz –Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan aurreikusitakoaren arabera–.

Aditzera eman den bezalaxe, ingurune biofisikoaren analisiaren helburua da ingurumen-unitate homogeenak definitzea eta kontserbaziorako duten balioa zehaztea.

Aztergai den zonako hiru zerrendetako bakoitzerako sektORIZAZIOA edo zonabanatzea egin da, horietako bakoitzaren bereizgarritasunetan oinarrituta.

- a) Lehorreko ingurunean (zentu hertsian), hau da, aztergai den lurraldeko lurreko lurralde osoan, unitate homogeenen kartografia egin zen, eta 1/25.000 eskalako

lau mapa gainezarri ziren analitikoki: landaredia (lotzen zaion faunaren aldagaia barne), geomorfologia eta prozesu aktiboak, paisaia, eta akuiferoen urrakortasuna. Kontserbaziorako balioa, bestalde, pisuak eta balioak esleitzeko prozedura analitiko bidez lortu zen.

b) Trantsizioko inguruneetan –hots, itsaslabarrek, hondartzek, dunek eta itsasadarren barrualdeak osatzen duten osotasunean (eragin-zona barne)–, berariazko eta xehetasuneko kartografia geomorfologikoa egin zen (1/10.000) fotointerpretazioko tekniken bitartez, eta, ondoren, zuzenean esleitu zen kontserbaziorako balio bat.

c) Itsas ingurunean, berriz, itsas hondoaren motan eta mota horien balio ekologikoan oinarritutako sektorizazioa eta balorazioa egin zen –itsas inguruneari dagokion kapituluan zehazten dena–.

Lurraldearen Arloko Planaren dokumentuko I. Liburukiko 2.1.7. idatz-zatian zerrendatzen dira lehorreko ingurune eta trantsizioko ingurune Ingurumen Unitate Homogeneoen Mapa lortzeko metodologia eta balorazio-irizpideak, baita lortzen diren emaitzak ere.

Dena den, Lurraldearen Arloko Planeko dokumentua kontsultatzeko aukera jarraitutako metodoaren ondoren laburbiltzen da.

Aztergai den lehorreko ingurune osorako gaikako mapak gainjarri ziren, trantsizioko inguruneetako zona barne; horrela, lortzen den balorazioa alderatu ahal izango da ondoren trantsizioko inguruneetarako berariaz egingo den analisisian lortutako unitateen balioarekin. Bestalde, trantsizioko inguruneetako unitateei zuzenean esleitu zitzairen kontserbaziorako balioa. Horretarako, 1/10.000 eskalan egindako xehetasuneko kartografia geomorfologikoan oinarritzen den analisisa erabili da –Plan hau idaztean berariaz jasotakoa–.

Prozedura automatikoez baliatu zen gainjartzea egiteko, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kartografiako Sistemako 1:25.000 eskalako honako mapak erabili ziren:

- Landaredia eta lurzoruen erabilera (honi loturik faunaren balioa ere baloratu da).
- Geomorfologia eta prozesu aktiboak.
- Paisaia.
- Akuiferoen poluzioarekiko urrakortasuna.

Gainjartzea independentea izan zen aztergai dugun esparrua osatzen duten honako 26 orrietarako (1/25.000):

37-II, 37-III, 37-IV
38-I, 38-III, 38-IV
39-III
40-IV
41-III
61-I, 61-II, 61-III, 61-IV
62-I, 62-II, 62-III, 62-IV
63-I, 63-II, 63-III, 63-IV
64-I, 64-II, 64-III, 64-IV
65-I eta III

Antzeko garrantzia duten proiektuetan behar bezain beste frogatu den pisuen eta balioen metodoaren bidez egin zen balorazioa. Hasiera batean, balio erdi-kuantitatiboa eman zitzaion balorazioan esku hartzen duten mapa bakoitzeko legendako aukeretako bakoitzari, betiere aukera bakoitzak kontserbaziorako duen interes mailaren arabera. Horretarako, honako eskala hartu zen aintzat:

1.- Oso balio txikia

2.- Balio txikia

3.- Balio ertaina

4.- Balio handia

5.- Oso balio handia

Ondoren, DELPHI metodoen konbinazioari esker eta unitate homogeneoei emandako azken balorazioen erregresio lineal bidezko analisiari esker, mapa bakoitzerako pisuak lortu ziren:

- Akuiferoen urrakortasuna: 15
- Paisaia-unitateak: 15
- Geomorfologia: 30
- Landaredia: 40

Kontserbaziorako balioa lortzeko, lehenik, unitate bakoitzerako balioen arabera pisuen batura egin zen eta batura horren balio absolutua kalkulatu zen; 60 eta 470 arteko balioak lortu ziren. Ondoren, tarte bakoitzerako metatutako azalaren batura kalkulatu zen, horiek txikienetik handienera ordenan jarri ondoren.

Balio-lerrunen azalera-banaketaren datuak abiapuntu izanik, kontserbaziorako bost balio-klasetan banatzea erabaki zen. Horretarako, pertzentilen metodoa aplikatu zen, eta horrela muturreko klaseetako bakoitzak azaleraren % 10 hartuko zuen, tarteko klaseetako bakoitzak % 15 eta erdiko klaseak % 50.

Aditzera eman denez, trantsizioko inguruneetan zona horretan ageri ziren ingurumen-unitateetarako beste kartografia bat egin zen. Kartografia hori 1:10.000 eskalako koloretako airetiko argazki-seriearen fotointerpretazioaren eta ondorengo landako egiaztapenen bidez egin zen. Sistema morfodinamiko hauek hartu dira aintzat:

- Itsaslabarrak
- Abrasio-plataformak
- Hondartzak
- Dunak
- Estuarioak

Adierazitako sistemetako bakoitza –abrasio-plataformak izan ezik– unitateetan azpibanatu zen, eta azpibanaketarako honako irizpideak erabili ziren:

- Itsaslabarrak: altura, pendiza, prozesu aktiboak
- Hondartzak: material mota, mareekiko erlazioa
- Dunak: landaredia eta erabilerak
- Mareaz gaindikoa: substratu mota (buztina, harea)
- Mareartekoa: substratu mota (buztina, harea)
- Uharteak
- Ubideak

Unitate hauek baloratzeko, kontserbaziorako balioaren zuzeneko esleipena egin zen, itsasertzeko zerrendarako gaikako mapen gainjartze analitikoko prozesuan lortutako balioekin alderatuta.

Kontserbaziorako balio-mapa lortzeko, aipatutako kartografiak gainjarri dira eta trantsizioko inguruneetako unitateei esleitutako balioa erabili da. Lurraldearen gainerakorako, berriz, egin den gainjartzea baloratzeko prozesuan lortutako klaseak erabili dira.

GIS sistema bidez egindako prozesu osoan zehar, probako hainbat balorazio egin zen, eta unitate “pilotuak” kontserbatzeko balioaren esleipen zuzena egiaztatu zen. Talde idazlea aho batez zetorren bat horiek babesteko beharraren inguruan. Taldekide guztiek berraztertu eta probatu zuten azken emaitza.

Deskribatutako tratamendu kartografikoan lortu ziren emaitzak abiapuntu izanik hartutako erabakiei buruzko hainbat iritzi eman behar da aditzera.

Antolamendu kategoriak esleitzeko jarraitutako prozedurari dagokio lehen. Zuzeneko esleipenik ez egitea eta kontserbaziorako balioa soilik aintzat hartzea erabaki zen. Hala eginez gero, ez da unitate bakoitzeko itsasertz izaera bereiziko; hori dela eta, guztizko kontserbaziorako balioen eta aintzat hartutako gai bakoitzerako balioen arteko konbinazioa egitearen alde egin zen.

Aurreko kasuan bezalaxe, hainbat proba egin zen taldekide guztiak gogobete zituen emaitza lortu arte.

Lurraldearen Arloko Plan hau beste antolamendu-tresna babesle batzuekin mailakatzearen eta horien arteko nagusitasunaren inguruko erabaki garrantzitsuak ere hartu ziren. Horrela, Lurraldearen Arloko Plan honek beste antolamendu-tresna batzuetara joarazten du honako kasuetan:

- Espazio natural babestuen kasuan
- Txingudiko Plan Bereziaren kasuan
- Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren kasuan
- Inguru Hezeak babesteko eta antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren kasuan

Natura 2000 Europako Sare Ekologikoaren parte diren eremuei dagokienez, Plan hau behin-behineko aplikatuko da, berariazko antolamendu-plana onartzen den artean.

Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren antolamendua koordinatu egiten da Itsasertza antolatu eta babesteko Lurraldearen Arloko Planean aurreikusten den antolamenduarekin honako alderdi hauetan:

- Lur gaineko urak babesteko lurzoru urbanizaezin gisa kalifikatutako lurzorua Plan horretan definitutako baldintzen arabera antolatuko da.
- Hiri-lurzorua eta lurzoru urbanizagarriaren gainean ere Plan horretan definitutako antolamendu-baldintzak aplikatuko dira.
- Nolanahi ere, kostaldeko lurraldea den aldetik, itsasadarretan kostalegerian ezarritako mugak aplikatuko dira.

Bestalde, portu-zona gehienak hiri-lurzoru gisa daude kalifikatuta hiri-plangintzan; hori dela eta, esparru horien antolamendua Portuak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planari, udal-plangintzari eta portu bakoitzeko zuzendaritza-plan bereziari lotuko zaio.

Azkenik, Lurraldearen Arloko Plan honek onartzeko bidean dagoen Nekazaritza, Basoak eta Ingurune Naturala antolatzeko Lurraldearen Arloko Planarekin duen lotura aztertu da. Azken horrek Itsasertza antolatu eta babesteko Lurraldearen Arloko Planean babes berezi, ingurumen-hobekuntza edo hiri-hondartza gisa kategorizatutako esparruak errespetatuko ditu; haatik, gainerako kategorien antolamenduan esku hartu ahal izango du, bidezko moduan.

Azkenik, antolamendu kategorien erabilerak erregulatzearen inguruko erabakiak ere garrantzi handikoak izan ziren. Prozesu luze eta korapilotsu hau berraztertze ugariren mende egon da, bai antolamendu kategoriak berriro definitzeko lanen ondorioz, bai Aurrerapen dokumentuaren informazio publikoaren ondorioz, bai behin-behineko onartutako dokumentuaren ondorioz. Horrez gain, Plan honen Ingurumen Inpaktuaren Aurretiazko Ebaluazioan eta hobekuntza teknikoko prozesuan bertan iradokitako aldaketak daude. Sartu diren aldaketen bitartez hobe definitu nahi izan dira jarduerak eta lurraldearen errealitate fisikorako erregulazio egokiagoa egin nahi izan da. Dena den, sartutako aldaketa bakar batek ere ez ditu Plan honen helburu orokorrak edo berariazko helburuak aldatu.

1.5 Planean biltzen diren jardunen laburpena

Planaren II., IV. eta V. liburukietan zehazten dira Planaren jardunak, orain horiek laburbilduko ditugu.

Aztergai dugun esparru osoko kontserbaziorako balioa lortu ostean, lehentxeago adierazitako aplikazio-esparrua finkatu zen.

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan egiten den definizioa eta sistematizazioa abiapuntu izanik egin da Lurraldearen Arloko Plan honen erabileren eta jardueren erregulazioa. Haatik, kasu batzuetan xehetasun handiagoz jardun da, zenbait erabilera eta jarduera garatzeko baldintzatzaileak gehiago zehaztu beharrak eraginda.

Xehetasun handiago horretarako, Plan honen helburuak hartu dira kontuan, baita itsasertzeko ingurunearen gainean sor daitezkeen eraginak eta antolatutako zonen berariazko ezaugarriak ere.

Hauek dira definitutako erabilerak eta jarduerak:

A) Ingurumen-babesari dagozkionak. Kontserbazio zorrotz eta aktiboko jarduerak, ingurumen-hobekuntzako jarduerak eta jarduera zientifikoak eta kulturalak barne hartzen ditu, ingurunearen azterketa eta ikerketa erraztearren.

B) Aisialdiari eta atsedinari dagozkionak. Askotariko jarduerak sartzen dira, hala nola erabilera publiko estentsiboa – ekipamendurik gabea –, erabilera publiko intentsiboa eta haren ekipamenduak (olgeta metatua, bainua, itsas jarduerak, kanpinak, ibilgailuen zirkulazioa, golf-zelaiak, aire zabaleko kirol-instalazioak eta instalazio zientifikoak eta kulturalak) eta kirol izaerako arrantza- eta ehiza-jarduerak.

C) Lehen mailako baliabideen ustiapenari dagozkionak. Nekazaritzari, abeltzaintzari, baso-lanei, nekazaritza eta abeltzaintzako industriei, akuikulturari, arrantzari, arrantza-industriei eta erauzpen-jardueri dagozkien erabilerak eta jardunak hartzen ditu, jarduera horiekin lotzen diren eraikuntzak eta praktikak barne.

D) Azpiegiturei dagozkienak. Jarduera hauek hartu dira aintzat: garraiobideak; hornidura-lineak –airetikoak zein lurpekoak–; linealak ez diren zerbitzuen instalazioak (A eta B motakoak); ubideratzeak; itsas kiroleko instalazioak; itsasertzeko pasealekuen eraikuntza; kosta babesteko obrak; instalazio aeronautikoak; eta hesi eta iragarki publizitarioak jartzea.

E) Hirigintza-hazkundeei eta eraikuntza-jardun isolatuei dagozkienak. Erabilera eta jardura multzo honetan sartzen dira hirigintza-hazkundeak, herri-onurako eta gizarte-intereseko eraikuntzak, lurzoru urbanizaezineko etxebizitza isolatua, industria edo biltegiatze arriskutsuak, eta itsas-lehorreko jabari publikoarekin lotzen diren industriak.

Antolamendu kategoriak dira Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek lurzoru urbanizaezinerako definitutako lurralde-eredua. Lurraldea harrera ahalmenaren arabera definitutako sektore homogeenetan zonabananatzen dute, eta horietako bakoitzari haren ezaugarrien arabera berariazko erabilerako erregulazioa aplikatzen zaio. Funtzio bikoitza dute, batetik, hiri-plangintzak lurzoru urbanizaezina kalifikatzean erabilitako izendapenak bateratzea, eta, bestetik, lurralde-plangintzan eta udal-plangintzan horiek antolatzeko irizpide orokorrak ezartzea, betiere lurzoru urbanizaezineko erabileren eta jardueren erregulazioa orientatuz.

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetako ingurunea fisikoari buruzko artezpidearen 6.2. idatz zatian aditzera ematen den moduan (8. Kapitulua), adierazitako kategorietako batzuetan ingurune fisikoaren ahalmenaren eta lurraldearen egungo errealitatearen arteko lotura dago. Beste kasu batzuetan, artezpide partikularrek zenbait kategoria ezartzen dituzte, eta kategoria horien inguruan garatu beharko dira ekintza positiboko neurriak, hau da, gaur egungo erabilera identifikatutako joeraren ondoriozko egoera desiragarriago batera egokitzeko neurriak kategoria horien arabera garatu beharko dira. Horixe gertatzen da Ingurumen Hobekuntza kategoriarekin.

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek aurreikusi eta ahalbidetzen duten moduan (8. Kapituluko ingurune fisikoari buruzko artezpidearen 6.4. idatz-zatia), Itsasertza antolatuta eta babesteko Lurraldearen Arloko Planak batzuetan antolamendu-azpikategoria gehigarriak txertatu ahal izango ditu –erregulatu beharreko lurraldearen ezaugarrien berezitasuna dela eta–, zona bakoitzeko erabileren eta jardueren erregulazioa lurraldearen harrera-ahalmenaren eta berezitasunen arabera izan dadin.

Hauek dira Lurraldearen Arloko Plan honen lurralde-esparruan definitutako kategoriak eta azpikategoriak:

Babes berezia (BB).

Eremu horietarako irizpide orokorra esku-hartze antropikoa ahalik eta gehien mugatzea da. Aurretik dagoen egoera mantenduko da, eta, aprobetxamendurik badago, aprobetxamendu hori modu iraunkorrean sustatuko da, erabilitako baliabidea berriztatzen dela ziurtatuz eta ingurunearen balioak zaintzen direla bermatuz. Zona horietako erabilerak eta jarduerak hobe erregulatzea sustatzeko, eta zonen heterogeneotasuna kontuan izanik, antolamenduko bi azpikategoria definitu dira:

a) Babes Berezi Zorrotza (BBZ). Kontserbaziorako balio handieneko eremuak dira.

b) Babes Berezi Bateragarria (BBB). Balio ekologiko, ingurumeneko eta/edo paisajistiko oso garrantzitsua izanik, balio horien kontserbazioa lehen mailako baliabideen aprobetxamenduarekin bateragarri egin behar duten espazioak dira –nekazaritza eta abeltzaintza mailako erabilerekin batik bat–.

Ingurumen Hobekuntza (IH)

Honako azpikategoriak sartzen dira kategoria horren barruan:

a) Ekosistemak hobetzeko eremuak (IH1). Balio ekologiko, ingurumeneko eta/edo paisajistiko garrantzitsuak izanik, itzulgarriak diren mota eta maila guztietako aldaketa antropikoak jasan dituzten espazioak dira.

b) Leheneratu beharreko eremu degradatuak (IH2). Ekintza antropikoaren ondorioz degradatuta egonik, leheneratzeko ahalmena duten eta aurreko antolamendu kategoriako espazioek baino ingurumen-balio txikiagoa duten espazioak dira.

Basoa (B)

Gaur egungo erabileragatik eta/edo erabilera-joeragatik (pendiza, arriskuak, arroken babesa, eta abar) baso erabilerako orientazio nabaria duten lurrak sartzen dira kategoria honetan. Itsasertzean produkzio-funtzio nabarmena duten baso-berritzeak ere sartzen dira kategoria honetan; alabaina, garrantzi handiko bigarren mailako osagai paisajistikoa eta olgetakoa dute.

Nekazaritza eta abeltzaintzako eta landazabaleko eremua (NAL).

Ahalmen agrologiko handiko lurzoruak sartzen dira kategoria honetan, hala nola eremu kantauriarreko landazabaleko mosaikoak eta larre-eremuetako abeltzaintza-joera duten lurzoruak. Itsasertzean hedatuen dagoen kategorietako bat da. Bestalde, ingurumen balio urriko eremuetan dauden aldatutako edo gizatiartutako zonak ere –labore-lurrak izan ezik– sartzen dira kategoria honetan, hala nola komunikabide handiak, harrobiak, meatzeak, zaborteziak, otalurrak, eta eraikuntzen edo betelanen ondorioz nekazaritza-joera galdu duten nekazaritza-lurzoruak.

Erabilera bereziko zonak. Hiri-hondartzak (EB)

Ingurumen balio handia izanik, guztiz finkatutako olgeta-erabilera intentsiboak mantentzen dituzten eremuak sartzen dira kategoria honetan. Olgeta-erabilera horiek guztiz zehazten dute eremu horien antolamendua.

Lurraldearen Arloko Planaren aplikazioko lurralde-esparruan antolamendu kategoriak eta azpikategoriak esleitzeko –definitutako moduan–, bi funtsezko irizpide erabili dira; lurzoruen erabilera-joera eta kontserbaziorako balioa.

Irizpide horiek aplikatzeko honako kartografietan biltzen den informazioa hartu da abiapuntu: Eusko Jaurlaritzak landutako 1:25.000 eskalako gaikako kartografietako informazioa –geomorfologia eta landaredia–; 1:10.000 eskalako itsasertzeko xehetasuneko kartografia geomorfologikoa; eta 1:25.000 eskalako kontserbaziorako balio-unitate homogeneousen mapa –azken biak Lurraldearen Arloko Plan honen informazio eta diagnostikoko fasean landu ziren–.

Antolamendu kategorien esleipena Lurraldearen Arloko Planak aztergai duen lurralde-esparru osorako egin da, eta haren 1:10.000 eskalako antolamendu-mapa lortu da.

Lehentxeago adierazitako irizpideak aplikatuta, lurralde-unitateen antolamendu kategorien esleipena edozein izanik ere, berariazko tratamenduko zenbait kasu nabarmen daitezke:

- Jaizkibel mendiaren itsasertzerako isurialdea: interes paisajistikoagatik, besteak beste, kontserbaziorako oso balio handia duen zona da; nolanahi ere, landaredi-estaldurak aldaketa handia izan duenez gero (abeltzaintza-aprobetxamenduaren eraginpean dauden eta sute ugari jasan duten txilardi-otadiko lurrak), leheneratu beharreko unitate bat da, ingurumen-balioaren osotasuna kontuan izanik. Horrenbestez, leheneratu beharreko eremu degradatuen kategorian (IH2) barne hartu behar da.
- Eremu berezietan dauden hiri-inguruko parkeak, hala nola Getariako sagua, Santa Klara uhartea eta Urgull mendia. Eremu horiek, haien kokapenagatik, babes bereziko kategorien barruan sartu beharko luketen arren, haien erabilera publikoak (guztiz finkatua eta haien antolamenduan aintzat hartu beharrekoa) guztiz baldintzatzen du nekazaritza eta abeltzaintza kategorian sailkatzea.

Orokorrean, kontserbaziorako balio handieneko (5 balioko) unitateak babes bereziko edo ekosistemen hobekuntzako klasetan biltzen dira, eta kontserbaziorako 4 balioa duten unitateak bat datoz ingurumen-hobekuntzako kategoriaren batekin.

Taula honetan islatu dira antolamendu kategoriak esleitzeko ezarri diren irizpideak:

Itsasertza antolatu eta babesteko Lurraldearen Arloko Planaren Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioari buruzko Azterlana

ANTOLAMENDU KATEGORIAK ESLEITZEKO IRIZPIDEAK				
KATEGORIA	AZPIKATEGOR.	IRIZPIDEAK		
		Kontserbaziorako balioa	Unitate kartografikoa	IZENA
BABES BEREZIA (BB)	Babes berezi zorrotza (BBZ)	5	Geomorf. 1:10.000 “ “ “ “ “ Landaredia 1:10.000 “ “ “ “ “ “	60°tik gorako pendiza duten itsaslabarrak Dunak Uharteak Abrasio-plataformak Uharriko hondartzak Mareaz gaindiko eremu lohitsuak Mareartekoa Larreak-ihitokiak / urpean gera daitezkeen sakonuneak Itsaslabarretako landaredi-konplexua Kostaldekoko hareatzetako landaredia Paduretako landaredia Zohikaztegiak eta txilardi zohikaztuak Lezkadiak eta karize handien formazioak Ur-landaredia
	Babes berezi bateragarria (BBB)	5	Landaredia 1:10.000	60°tik beherako pendiza duten itsaslabarrak
INGURUMEN HOBEKUNTZA (IH)	Ekosistemak hobetzeko eremuak (IH1).	4	Landaredia 1:10.000 “	Bertako baso degradatua: harizti azidofiloa eta baso misto degradatua Sastrakadi kantauriarrak: aurre-txilardi atlantikoa, gurbiztia edo sastrakadi garai termoatlantikoa, txilardi garai menditarra, elordia edo lahardia
	Leheneratu beharreko eremuak (IH2)	4	Landaredia 1:10.000 Geomorf. 1:10.000 “ Landaredia 1:10.000	Txilardi/otadi/iratzedia Estuario eremuetako betelan heterogeneoak Marearteko zonen gaineko hareen betelanak Hartxingadietako landaredia
BASOA (B)		5	Landaredia 1:10.000 “ “ “ “ “ “ “ “ “ “ “ “ “	Aleppo pinudia Itsas pinudia Artadi kantauriarra Erkamezti-harizti kaltzikola Amezti Harizti azidofiloa eta baso mistoa Gailurreko eta haitzebakien oineko baso mistoa Urkidiak Pagadi kaltzikola edo eutrofikoa Pagadi azidofiloa Haltzadi kantauriarra Sahastia Kareharritzko harkaitzetako landaredia Kareharri silizeozko harkaitzetako landaredia
		<4	Landaredia 1:10.000	Baso-landatzeak
NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA ETA LANDAZABALA (NAL)		<4	Landaredia 1:10.000 “	Belardi eta labore atlantikoak Larreak: laiotze silizeotako belardi garaiak (mendiko larreak, Brachipodium pinnatum-aren albitz-belardia eta beste belardi mesofilo batzuk, Agrostis curtisii-aren belardi silizikola), larre harritar kaltzikola
		4	Landaredia 1:10.000	Hiri-parkeak eta lorategiak
		<4	Geomorf. 1:10.000 “ “ Landaredia 1:10.000	Dunak eraikuntzekin Betelane gaineko zona eraikiak Betelane gaineko ekipamendu-zonak Landaredi erruderal nitrofiloa
ERABILERA BEREZIA Hiri-hondartzak (EB)		5	Geomorf. 1:10.000 “ “ “	Harea zementatuko hondartza Marearteko hareako hondartza Mareaz gaindiko hareako hondartza Mareaz gaindiko eremu hareatsua

Horrela, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetako ingurune fisikoari buruzko artezpideko 6.5. idatz-zatian (8. kapitulua) ezartzen den bezalaxe, antolamendu kategoria eta azpikategoria bakoitzeko erabileren eta jardueren berariazko erregulazioa ezarri da. Horretarako, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan, oro har, erregulatutakoa eta Lurraldearen Arloko Plan honen mende dagoen lurralde-esparruaren baldintza partikularrak izan dira kontuan.

Lehorreko ingurunearen kostaldeko ertzetan, erabileren eta jardueren erregulazioa egingo bada, antolamendu kategorietan definitutako erabilerak eta jarduerak hartuko dira aintzat, eta horietan mota hauetako erabilerak finkatzea zehaztu da:

- a) Erabilera sustatuak. Antolamendu kategorian lortu nahi diren helburuak lortzeko eragin positiboa duten edo eragin negatiborik ez duten erabilerak eta jarduerak dira.
- b) Erabilera onargarriak. Itsasertzaren babesean eragin txikia duten erabilerak eta jarduerak dira.
- c) Erabilera debekatuak. Ezarritako antolamendu kategoriaren printzipioetan, edo, oro har, itsasertzaren babesean, eragin negatiboa izango dutelako sustatzen edo onartzen ez diren erabilerak edo jarduerak dira.
- d) Erabilera desagokiak. Haien izaeragatik antolamendu kategoria jakin batzuetan barne hartzen diren lurraldeko zonetan ezartzeko funtsik ez duten erabilerak edo jarduerak dira.

Erabilera onargarrien edo baimengarrien barruan, halaber, hiru erabilera klase ezarri dira:

- a) Arloko erregulazioaren mende dauden erabilerak.
- b) Udal-plangintzak erregulatu behar dituen erabilera onargarriak.
- c) Berariazko lizentziako, debekualdiko eta/edo gutxieneko tamainako prozeduren mende dauden erabilera onargarriak.

Horrela, erabilera edo jarduera bakoitzerako ezarritako erregulazio xehatua eta antolamendu kategoria bakoitzean ezartzen da zein erabilera motari dagokion. Horrenbestez, argi eta garbi ezartzen da erabilerak eta jarduerak zer muga eta murriztapen duten antolamendu kategorietan.

Erregulazio horren salbuespen bakar gisa, erregulazioa ez da aplikatzekoa izango azpiegitura handiak ezartzeko jardueren kasuan, ezta Estatuak edo Euskal Autonomia Erkidegoak interes orokorreko gisa izendatu dituen obrak ere, baldin eta egin beharreko ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren iritziz Plan honetan xedatutakoarekin zentzuz bateragarria den aukerarik ez badago.

Horrez gain, Lurraldearen Arloko Plan honen osotasunean lurzoru urbanizaezineko hirugarren sektoreko erabilerean jarduera erregulatu da (hotelak, landa-turismoa...). Gaur egun dauden eraikinen gainean garatu ahal izango dira erabilerak, eraikina birgaitu ondoren –eraikinaren kanpoko konfigurazioari, estalkiari eta fatxadei eutsiko zaie–.

Era berean, nekazaritza eta abeltzaintzako jarduera aurretik dauden eraikinetan garatzen denean soilik izango da onargarria itsas-lehorreko jabari publikoko babes-zonaren barruan nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenari lotzen zaion etxebizitza. Nolanahi ere, eraikinaren kanpoko konfigurazioari, estalkiari eta fatxadei eutsiko zaie.

Lehorrean, itsasadarren ertzetan, berdin jardun da, Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeke Lurraldearen Arloko Planean ezarritakoarekiko beharrezko koordinazioari dagokionean izan ezik –dagokion idatz-zatian zehazten da alderdi hori zehazki–.

Itsas ingurunearen ezaugarri biofisiko bereziak direla-eta, lehorreko ingurunean sustatzen denaz oso bestelako plangintza esparrua osatu dute ingurune horretan garatzen diren erabilerak eta eskumenen konkurrentziak.

Itsas ingurunearen kasuan, kostaren tarte edo zona horren ingurumen-balioaren eta joeraren arabera plangintza-**sektoreak** ezarri dira. Itsas ingurunearen gaineko ezagutza txikiagoa da, eta egin diren azterlanak xehetasun eskala txikiagokoak ziren; hortaz, sektore horiek ezin zaizkio aztergai den esparru osoari esleitu, lehorreko ingurunean egin den moduan. Hori dela eta, **lehentasuneko erabilera** ezagunen euskarri diren aldetik identifikatu dira sektoreak –sektore bakoitzeko helburuak lortzen eragin positiboa izan dezaketen erabilerak izango dira lehentasuneko erabilera–.

Itsas ingurunearen plangintzan barne hartzen diren artezpide orokorretan, Planaren helburu orokorrak lortzeko bideratzen diren hainbat gomendio eta proposamen txertatu dira, nahiz eta gomendio eta proposamen horiek garatzea eta aplikatzea beste mota bateko tresna juridiko administratibo bati dagokion. Gai hauei dagozkie:

- **Hondartzak birsortzeko agregakinak erauztea**
- **Arrantza egitea, itsaskitan ibiltzea eta algak biltzea**
- **Akuikulturako instalazioak**
- **Balizak, buiak edo seinaleztapen-egiturak jartzea portuetan eta nabigazio-eremuetan**
- **Hornidurarako eta hozketarako ur-hartuneak**
- **Itsaspeko eroanbideak**
- **Hondakin-urak arazteko instalazioak**

- **Itsaspeko hustubideak**
- **Bainu-zonetan edo kontserbazio-eremuetan hondakin-urak etengabe isurtzen diren puntuak**
- **Dragatze-lanen ondoriozko material geldoen isurketa**

Jarduera horietarako guztietarako jarduteko moduak proposatzean, jarduera horien edo beste batzuen gainean eragin negatiborik sortzen ez dela eta ingurune hartzailearen gainean ahalik eta aldaketarik txikiena egiten dela hartuko da kontuan. Gainera, jarduera horiek behar bezala egitea eragotz dezaketen beste jarduera batzuen kokalekuarekiko gutxieneko distantziak ere emango dira aditzera.

Itsas ingurunekeo erabilerak definitzean, berriz, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan erabilitako definizioen sistematikari eta egiturari jarraitu zaio; edonola ere, eta logikoa den moduan, garatu beharreko jardunak oso bestelakoak dira itsas ingurunean eta lehorrean –Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek lehorreko erabileren eta jardueren sistematizazioa egin dute–.

Honakoak dira definitutako jarduera horiek:

- **Ingurumenaren kontserbazioari eta hobekuntzari dagozkionak.** Kontserbazio zorrotzeko jarduerak ez ezik, ingurumen-hobekuntzakoak ere sartzen dira.
- **Aisialdiari eta atsedinari dagozkionak.** Lehorreko ingurunean ere aintzat hartu diren jardueraz gain –erabilera publiko intentsiboan sartutako batzuk esate baterako–, erabilera intentsibokotzat jo diren beste jarduera batzuk ere barne hartu dira, hala nola nabigazioa eta ainguratzea (bidezko instalazioekin).
- **Lehen mailako baliabideen ustiapenari dagozkionak.** Agregakinak erauzteko jarduerak (hondartzak birsortzeko), arrantza profesionala, alga-bilketa, eta akuikulturarako kaiolak eta bateak.
- **Azpiegiturei dagozkienak.** Nabigazioari eusteko seinaleztatze-jarduerak, ainguralekuak, portuak eta dragatzeak sartzen dira. Gainera, kostaldea babesteko jarduerak, itsaspeko hustubideen eraikuntza, ur-hartuneak, itsaspeko kableak eta eroanbideak, baliabideen prospekzioa eta hondakinak ezabatzekeo jarduerak ere sartzen dira.

Itsas ingurunearen plangintzako sektoreak, beraz, erabilerako joeraren eta ingurumen-balioaren arabera definitu dira, eta lehentxeago sistematizatutako lehentasuneko erabilerak garatzeko eta eusteko zona egokia bihurtuko den plangintzako sektorea sortuko da.

Ondoren deskribatu dira hala osatutako sektoreak.

A. INGURUMEN BABESA ETA HOBEKUNTZA

A.1. Kontserbazio Zorrotzeko Zonak. Balio handiko zonak dira, non esku-hartze antropikoa ahalik eta gehien mugatu behar den. Instalaziorik gabeko erabilera didaktikoa eta ikerketa soilik sustatuko da.

A.2. Ingurumen hobekuntzako zonak. Balioa natural handiko zonak dira, baina leheneratzeko ekintza zehatzen bidez balio horiek hobe ditzaketenak. Honako zona hartzen du:

B. AISIALDIA ETA ATSEDENA

B.1. Erabilera Publiko Estentsiboko Zonak. Balio handikoak izateagatik instalazio iraunkorrik ez onartzea gomendatzen den aisialdi eta atsedenerako zonak dira.

B.2. Erabilera Publiko Intentsiboko Zonak. Batik bat nabigaziorako erabiliko diren instalazio iraunkorrak dituzten zonak dira. Hauek dira:

C. BALIABIDEEN USTIAPENA

C.1. Hondartzak birsortzeko agregakinak erauzteko zonak. Kontserbazioko edo erabilera estentsiboko zonak saihestu behar dira; horrez gain, behar beste harea izan beharko dute substratuan aldaketa nabarmenik ez eragiteko.

C.2. Arrantza eta bilketako zonak. Baliabide egokiak dituzten zonak dira.

C.3. Akuikulturako zonak. Akuikulturako jarduerak ingurunean eragin nabarmenik eragiten ez duten senaiak eta itsasadarrak dira.

D. AZPIEGITURA ETA ISURKETETAKO ZONAK.

Materialak biltegiratzeko eta saneamendu-azpiegiturak kokatzeko zonak dira, baita instalazio iraunkorra eskatzen duen beste edozein esku-hartze kokatzeko zonak ere.

Itsasertzeko hainbat zonen gaineko ezagutza mailari esker, itsas ingurunekeo zenbait sektore argi eta garbi identifika daitezke lehentasuneko erabilera eta jardueren euskarri gisa –aurreko idatz-zatian definitutako sektoreei esleitzen zaizkien erabilerak eta jarduerak dira–.

Aditzera eman den bezalaxe, itsas ingurunerako proposatutako erabilerak eta jarduerak erregulatzeko mekanismoa sektoreetan **lehentasuneko erabilerak** esleitzean datza, hau da, esleitutako kategoriaren helburuak lortzeko eragin positiboa izan dezaketen erabilerak edo eragin negatiboa ez duten erabilerak esleitzean. Erabilera horiek zer baldintzatan egin daitezkeen ematen da aditzera, baita erabilera horietako batzuk zein zonatan saihestu behar diren ere.

Itsas ingurunearen plangintza-sektoreetako erabilerak erregulatzeko, sektore horietako bakoitzerako lehentasuneko erabilerak ezarri beharko dira, eta erabilera horiek egiteko baldintzatzaileak finkatu behar dira. Erregulazio-matrizean islatzen da hori guztia.

Horrez gain, definitutako erabileretako eta jardueretako batzuk itsas inguruneen plangintza-sektoreetako batzuetan baztertu behar dira, jarduera horien garapenak ingurune hartzailean eragin ditzaketen inpaktuak direla eta.

Horrela, ingurumenaren kontserbazioari eta hobekuntzari dagozkion plangintza-sektoreetan honako erabilerak baztertzen dira:

- C.1.1.1. Hondartzak birsortzeko dragatzea.
- C.2.1. Arrantza egitea, itsaskitan ibiltzea eta algak biltzea.
- C3.1. Bateak eta kaiolak erabiltzea.
- D1.2. Ainguralekuak
- D1.3. Kirolerako, arrantzarako zein merkataritzarako portuak eta dartsenak.
- D1.4. Mantentzeko dragatzeak.
- D2.1. Komunikazioko obra publikoak ainguratzea edo piloteak jartzea.
- D3.1 Kai-muturrak
- D5.1. Hornidura eta hozte-sistema: ur-hartuneak.
- D6.1. Kableak eta eroanbideak.
- D8.1. Hiri-jatorriko hondakin-urak isurtzea.

Erabilera publiko estentsiboko zonetako plangintza-sektoreetan honako erabilerak baztertzen dira:

- C.1.1.1. Hondartzak birsortzeko dragatzea.
- C.2.1. Arrantza egitea, itsaskitan ibiltzea eta algak biltzea.
- C3.1. Bateak eta kaiolak erabiltzea.
- D1.2. Ainguralekuak.
- D1.3. Kirolerako, arrantzarako zein merkataritzarako portuak eta dartsenak.
- D1.4. Mantentzeko dragatzeak.
- D2.1. Komunikazioko obra publikoak ainguratzea edo piloteak jartzea.
- D5.1. Hornidura eta hozte-sistema: ur-hartuneak.
- D6.1. Kableak eta eroanbideak.
- D8.1. Hiri-jatorriko hondakin-urak isurtzea.

Lehen mailako baliabideen ustiapeneko (arrantzako eta bilketako) plangintza-sektoreetan honako erabilerak baztertzen dira:

- D8.1. Hiri-jatorriko hondakin-urak isurtzea.

Azkenik, lehen mailako baliabideen ustiapeneko (akuikulturako) plangintza-sektoreetan honako erabilerak baztertzen dira:

- D8.1. Hiri-jatorriko hondakin-urak isurtzea.
- D1.2. Ainguralekuak.

Planaren helburuak lortzeko Jardun Programa bat proposatu da –V. liburukian zehazten dena–. Programa horrek Planaren antolamendu-esparruan gauzatu beharreko esku-hartzeak biltzen ditu.

Helbururik zuzenenei erantzuteko, jardun-tipologiak biltzen dituzten oinarritzko 5 azpiprograma hauek ezarri dira:

1. Itsas-lehorreko jabari publikoko eta haren zortasun-zonetako ondasunak administratzeko eta koordinatzeko jardunak.
2. Azpiegituren arloko defizitak ordezkatzeko jardunak.
3. Baliabide naturalak babesteko, hobetzeko eta kontserbatzeko jardunak
4. Itsasertzeko espazioaren erabilera publikoa sustatzeko eta erregulatzeko jardunak.
5. Ikerketa zientifikoko azterlanak.

Lortu nahi diren helburu orokorrak eta zehatzak eta dagozkien jardunak biltzen ditu azpiprogrametako bakoitzak. Ondoren, jardunak eta horien kokapenak deskribatu dira. Berariazko jardunen kasuan, gauzatze maila, jarduna gauzatzen duen organismoa eta beharrezko inbertsioa zehaztuko da.

Jardunaren **gauzatze mailak** jardueraren iritsierari erantzuten dio, eta honako kasuak hauteman daitezke:

- Esku-hartze administratiboa: administrazio eskudunen esku-hartzea, hala nola mugapena egitea, zabaltze bat deklaratzeko, eta abar.
- Azterlan, Plan edo Proiektu bat idaztea: dokumentu teknikoa edo arauzkoa lantzea –dokumentu hori abiapuntu izanik lantzen da jardunen programa eta programatzen dira inbertsioak–.
- Gauzatze-obra: Plan baten Jardun Proiektua edo Programa gauzatzen da.

Proposatzen diren jardunen artean, kostuen kalkulua egiteko aukera ematen dutenak (gutxi gorabehera bada ere) **baloratzen dira ekonomikoki**. Beste batzuk kalkulatzeko, berriz, oso zaila da, haien eskumen-esparruagatik edo beste zirkunstantzia batzuegatik –esku-hartze administratiboak batik bat–; hori dela eta, beste jardun horiek balorazio ekonomikoaz kanpo uztea erabaki da.

Itsasertzeko esparruak oso azalera handia hartzen duenez gero, kontuan hartu behar da egindako balorazio ekonomikoak hurbiltze hutsa direla eta guztiz orientagarriak baino ez direla. Hortaz, proposatutako jardunetako edozein abian jarri aurretik, jardun horren kostuak modu errealagoan eta zehatzagoan baloratuko duen azterlan xehatua egin beharko da.

Azkenik, jardun-proposamenak behar bezala **hierarkizatu** dira, hiru lehentasun maileri erantzunez:

- Lehen maila: egungo egoera kritikoagatik premiazkotzat jo diren eta berehala abian jarri behar diren jardunak.

- Bigarren maila: Itsasertzeko hainbat espazio berreskuratzeko, leheneratzeko eta pixkanaka hobetzeko jardunak eta babes-irudiak ezartzera bideratutako jardunak, epe laburrean-ertainean ekin beharrekoak (1-2 urtetan).
- Hirugarren maila: Ingurumen arloan oso degradatuta dauden zonak leheneratzeko, ingurumen-baliabideen erabilera eta gozamina bateragarri egiteko eta ikerketa-azterlanak egiteko jardunak dira, 2-4 urteko epean has daitezkeenak.

1.6 Beste plan batzuetako arteztarauak eta irizpideak aintzat hartu, integratu eta garatzen dituzten zehaztapenen laburpena

Lehenik, Planaren esparruan dagoen ingurumen-plangintza hartu da aintzat; horrela, araudiaren 3. artikulua hainbat azpiesparrutako ingurumen-plangintzara jotzen du:

1.- Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren eremua 5/1989 Legearen garapenaren ondorioz sortutako Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak antolatuko du –5/1989 Legea, uztailaren 6koa, Urdaibai Biosferaren Erreserba babesteari eta antolatzeari buruzkoa–.

2.- Parke Natural, Biotopo Babestu edo Zuhaitz Berezi izendatutako eremuak 16/1994 Legearen garapenaren ondoriozko Baliabide Naturalak Antolatzeko Planen bidez edo bestelako araudien bidez antolatuko dira –16/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura babesten duena–.

3.- Natura 2000 Europako Sare Ekologikoaren parte diren eremuetan, Plan hau behin-behineko aplikatuko da, berariazko antolamendu-plana onartzen den artean.

4.- Txingudiko hezegunea bertako Antolamendu Plan Bereziaren bidez antolatuko da.

Beste Lurraldearen Arloko Plan eta Lurraldearen Zatiko Plan batzuekiko lotura araudiaren 4. artikuluan aurreikusten den moduan egingo da:

1.- Lurraldearen Zatiko Planak honako Plan honi nagusituko zaizkio babes bereziko eremuen definizioan, hirigintza-garapeneko lehentasuneko eremuen definizioan eta espazio libreen, ekipamenduen edo azpiegituren ekipamenduan.

2.- Plana honela koordinatuko da beste Lurraldearen Arloko Plan batzuekin:

a) Behin betiko onartu den Inguru Hezeak babesteko eta antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren II. multzoko hezeguneetako esparruak Lurraldearen Arloko Plan horrek antolatuko ditu.

b) Portuak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak, udal-plangintzak eta portu bakoitzeko Zuzendaritza Plan Bereziak antolatuko dituzte portu-zonetako esparruak.

c) Itsasadarren ertzak, bestalde, Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeke Lurraldearen Arloko Planarekin batera antolatuko dira, eta honela egingo da:

- Lur gaineko urak babesteko lurzoru urbanizaezin gisa kalifikatutako lurzorua Plan horretan definitutako baldintzen arabera antolatuko da.
- Hiri-lurzorua eta lurzoru urbanizagarriaren gainean ere Plan horretan definitutako antolamendu-baldintzak aplikatuko dira.
- Nolanahi ere, kostaldeko lurraldea den aldetik, itsasadarretan kostalegerian ezarritako mugak aplikatuko dira.
- Lur gaineko urak babesteko lurzoru urbanizaezinaren inguruko lurraldean Plan honen zehaztapenak izango dira aplikatzekoak.

d) Nekazaritza, Basoak eta Ingurune Naturala antolatzeke Lurraldearen Arloko Planak Plan honetan babes berezikotzat edo ingurumen-hobekuntzakotzat jotzen diren esparruak errespetatuko ditu; haatik, modu egokian esku hartu ahal izango du antolatutako lurraldeez kanpoko lurzoru urbanizaezinaren gainerakoaren antolamenduan.

Bestalde, araudiaren 5. artikuluan udal-plangintzara jotzen da; izatez, hiri-lurzoruko edo lurzoru urbanizagarriko esparruen antolamenduak Kosta Legea eta udal-plangintza bete beharko du –4. artikuluko 2c idatz-zatian aintzat hartutako kasuetan izan ezik–.

Lehentxeago aditzera eman den moduan, lehorreko inguruneke itsasadarren ertzetan bat egiten dute Plan honek eta Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeke Lurraldearen Arloko Planak. Azken plan horren ezaugarriak direla-eta, bi planen arteko koordinazioa honela egingo da:

- a) Behin betiko onartutako Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeke Lurraldearen Arloko Planari jarraituz, Lurraldearen Arloko Plan horrek definitutako baldintzen arabera antolatuko da udal-plangintzak lur gaineko urak babesteko lurzoru urbanizaezin gisa kalifikatutako lurzorua.
- b) Hiri-lurzorua eta lurzoru urbanizagarriaren gainean ere Plan horretan definitutako antolamendu-baldintzak aplikatuko dira.
- c) Nolanahi ere, kostaldeko lurraldea den aldetik, itsasadarretan kostalegerian ezarritako mugak aplikatuko dira.
- d) Plan honen esparruan sartzen den lurraldean Plan honen zehaztapenak izango dira aplikatzekoak –lur gaineko urak babesteko lurzoru urbanizaezinaren ingurutzalea eta Antolamendu Arau hauetako 3., 4. edo 5. artikuluetan adierazitako planetako bakar batek ere berariaz antolatu ez den lurraldean–.

1.7 Inpaktuak eragin ditzaketen jardunak identifikatzea.

Inpaktuak eragin ditzaketen jardunei dagokienez, lehentxeago adierazi den bezalaxe, Planak bere esparruko lurraldea soilik kategorizatzen du, hainbat kategoriatan egin daitezkeen jarduerak zehazten ditu eta, oro har, azpiegiturak kokatzea eskatzen ez duten garapen-jardunen proposamena egiten du. Haatik, gisa horretako jardunak ez dira lurraldean kokatu, beste plangintza edo erabaki batzuen mende baitaude.

Lehendik aditzera emandakoa da kategorizazioa egiteko prozedura, hau da, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan adierazitako prozedurari eta jarraibideei jarraituz egindako ingurune fisikoaren analisisian eta kategorien esleipenean oinarrituko da prozedura.

Antolamendu kategorien oinarriaren gainean egin da erabileren eta jardueren erregulazioa, eta erregulazio hori ez da ezarpena, gutxienekoa baizik. Hots, antolamendu kategorია bakoitzerako, bertan gara daitezkeen balizko erabileren onargarritasuna edo onartezintasuna ezarri da; hortaz, Plan honek itsasertzarako gutxieneko babeserako esparrua baino ezin du eratu, erabileren zuzeneko esleipenak finkatu gabe.

Jardun-proposamenei dagokienez, ingurunearen gainean inpaktuak eragin ditzaketen jardun guztiak zerrendatzen dira:

Azpiegitura-egokitzapenari buruzko 2. azpiprograman, hondakin-uren araztegiak eraiki beharra eta hiriguneetan beste saihesbide batzuk gauzatu beharra barne hartu da.

Baliabide naturalak babesteari, hobetzeari eta kontserbatzeari buruzko 3. azpiprograman, estuario degradatuak leheneratzea (Barbadun, Butroe, Lea, Artibai, Deba, Urola eta Oria) eta degradatutako hondartzak eta kostaldeko zonak leheneratzea, hala nola Bilboko Portuko kanpoaldeko Abra, Kondemasti (Pasaia), Inpernupe (Zumaia), Ondarbeltz (Mutriku), Basordas (Lemoiz) eta Bola eta Areeta (Getxo).

Azkenik, 4. azpiprograman itsasertzaz baliatzeko eta gozatzeko interpretazio-ibilbideen ekipamendua barne hartu da.

2. azpiprogramako jardunei dagokienez, Planak garrantzi txikieneko jardunak biltzen ditu, eta ez ditu finkatzen jardunen dimentsioak, zehaztapenak eta kokapenak. Horiek bideratzeko prozesuan antolatuko dira ingurumen-kontrolak.

3. azpiprogramari dagokionez, espazio degradatuak leheneratzeko jardunak dira, betiere jardun sinple samarrekin jatorrizko ingurumen-baldintzak lehenera daitezkeela hauteman den zonetan gara daitezkeenak. Edonola ere, horien guztien inpaktua ebaluatzeko ingurumen-kontrolak egin beharko dira jardunak gauzatzean.

Azkenik, 4. azpiprogramari dagokionez, ibilbideen ekipamendua osatzeko tamaina txikiko ekipamenduak instalatuko dira, hala nola begiralekuak, bisitaldiak ibilbide eta eremu jakin batzuetarantz bideratuko dituzten –urrakortasun handiagoko beste batzuk

babestuz– ibilbide autodidaktikoko txartelak, interpretazio-taulak, interpretazio-aretoak, ingurumen arloko museo didaktikoak, eta abar. Oso irekiak izango dira, hots, ibilbide guztiek ez dute zertan instalazio berdinak izango, zonen urrakortasuna eta balioa askotarikoa baita.

Ibilbide horiek gauzatzea aurreikusten den eremuetan, ibilbide horiek instalatzeak ez du eragingo ingurumen-inpaktu onartezinik –balio handiko zonetan eragina izan gabe egin daitezke ibilbideak–. Hauek dira: Zumaiako Aizturi lurmuturra (Deba eta Zumaia), Gaztelugatxe-Matxitxako (Bakio eta Bermeo), Jaizkibel mendia (Pasaia, Lezo eta Hondarribia), Otoio mendia (Ispaster), Lumentxa muinoa (Lekeitio), Getariako San Anton (Getaria), Ulia mendia (Donostia) eta Pobeñako mendebaldea.

1.8 Plana gauzatzeko faseak.

Ez da aurreikusi Plana, berez, fasetan garatzea; nolanahi ere, Planean jasotzen diren jardunak garatzen hasteko nolabaiteko denbora-antolaketa dago –V. liburukian aditzera ematen den bezalaxe–.

1.9 Hauteman diren informazio-hutsuneak.

Lurraldearen Arloko Plana idazteko lanetan hautemandako hutsune nagusia informazio kartografikoaren ondoriozkoa da, batez ere informazioaren eskalari eta antzinasunari dagokionez. Bereziki, duela bi hamarkada baino gehiago egindako landarediaren kartografiari dagokionez, hiri-inguruneke zein landa-inguruneke erabileren aldaketak agerian geratzen dira kartografia hori ortoargazkien informazioarekin alderatzean.

Ildo horretan, jakinarazi behar da landaredi-kartografia berria amaitzear dagoela, eta nahiz eta Eusko Jaurlaritzak oraindik baliozkotu ez duen, oso baliagarria izan dela babes bereziko eremuen mugak berriro definitzeko –muga horiek aurreko landaredi-kartografian soilik oinarritzen diren kasuetarako–.

Dena den, hauteman diren ia informazio-hutsune guztiak trantsizioko eta itsas inguruneke ingurunekei dagozkie –oinarrizko informazio gabeziak daude–; hori dela eta, Jardun Planean informazio-defizit hori estal dezaketen azterlanak egitea proposatzen da, Plan hau eguneratu ahal izatearren.

Honako hauek dira azterlanak:

- **Itsasertzeko uren kalitate-sarea (urak, jalkinak, biota eta komunitateak)**
Estuarioen eta itsasertzeko uren egoeraren eta bilakaeraren ezagutza areagotzea, egungo eskemari eutsiz –1998. urteaz geroztik beste hiru estazio, eta lau urtero estuario bakoitzerako xehetasuneko laginketak–.
- **Lehorretik itsasorako isurketen ingurumen-eragina.** Isurketek itsas ekosisteman duten eragin nagusiak zehaztea, arazorik handienak dituzten guneak kokatzea, eta gune horiek leheneratzeko neurri zehatzak proposatzea.

- **Estuarioetako eta kostako uren kalitate iktiologikoa.** Itsasadarretan eta itsasertzean ageri diren arrain-komunitateak eta ingurunearen kalitatearekin duten lotura identifikatzea.
- **Ur gaineko hondakinen itsas poluzioa.** Arazoaren benetako garrantzia kalkulatzea, arazoaren jatorria ezartzea eta arazoa errotik konpontzeko neurri zuzentzaileak proposatzea.
- **Portuetako eta estuarioetako TBT (tributiltin) bidezko poluzioaren azterketa.** Uretan agertzen diren jalkinen eta moluskuen kontzentrazioa eta komunitate bentonikoen gainean izan dezakeen inpaktua. Poluzioa murrizteko proposamenak.
- **Kostaldeko plataformako uretan eta jalkinetan poluitzaileen hondoko mailen azterketa** (metal astunak, konposatu organikoak, etab.).
- **Estuarioetako eta kostaldeko barreiadura-prozesuen eta poluzio-prozesuen azterketa,** modelizazio-tresnen bitartez.
- **Habitaten zehaztapenaren kartografia.**
- **Kostaldeko zonako materialen garraioari buruzko azterketak.**
- **Estuarioetako eta kostaldeko ingurune fisikoari buruzko azterketak.**
- **Epe luzerako aldaketa klimatikoaren datuak lortzea.**
- **Kanpoko espezieen sarrerari buruzko azterketak.**
- **Euskal kostaldean sentikorrak diren itsas zonen inbentarioa.** Horietako bakoitzaren ezaugarriak zehaztea, horien mehatxu nagusiak eta epe labur, ertain eta luzerako babes-neurriak.
- **Fondoko arrasteak komunitate neritikoetan duen eragina.** Kostaldeko zonako sare trofikoaren, planktonaren eta bentosaren egituraren bitartez eraginak.
- **Itsasertzeko dinamikaren azterketak:** mareen, korronteen eta olatuen neurketak.
- **Itsasertzeko jaulkitze-dinamika: euskal kostaldeko unitate geomorfologikoen ezaugarriak.** Jaulkitze-garraioaren unitateak aztertzea, baita horietako bakoitzean kostaldeko jardunak ere (ibaien deskargak, isurketak eta obrak).

- **Estuarioetako bilakaera fisiografikoa** (padurak, hareatzak, drainatze-bideak, etab.), eskura dagoen informazio historikoaren analisiaren bitartez (kartografia eta airetiko argazkiak).

1.10 Parte-hartze publikoa.

Itsasertza antolatu eta babesteko Lurraldearen Arloko Planaren Aurrerapenean Planaren laburpena zabala jaso zen, baita gaineratzen zitzaion kartografia ere. Argitalpena erabat zabalduta zen eraginpean dauden administrazioen artean, eta, gainera, jendaurrean aurkeztu zen. Ondoren, administrazioek igorritako iradokizun eta txosten ugari jaso zen.

2 Beste plan eta programa batzuekiko elkarreraginen azterketa.

Azterlan honen 1.6. idatz-zatian jada jorratu dira beste plan eta programa batzuekiko elkarreraginak.

3 Planaren eraginpean dagoen esparruaren ingurumen arloko azterketa, diagnostikoa eta balorazioa

3.1 Aztergai den esparruaren definizioa

Itsasertza antolatu eta babesteko Lurraldearen Arloko Planaren mende dagoen esparrua mugatzean, hainbat irizpidek hartzen dute esku, baina tipologia bikoitzekoak dira:

- a) Itsasertzeko espazioaren definizio administratiboko irizpideak.
- b) Itsasertzaren unitate morfodinamikoa eta fisiografikoa definitzeko irizpide teknikoak, betiere espazio-unitate horren faktore eta prozesu bereizgarriak aintzat hartuta.

3.1.1 Itsasertzeko espazioaren definizio administratiboa.

Itsasertza espazio administratibo gisa edo itsas-lehorreko jabari publikoko espazio gisa behar bezala definituta dago kostei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legean. Estuarioak dira itsasertzaren eta urei buruzko abuztuaren 2ko 29/1985 Legean jabari publiko hidrauliko gisa definitzen den espazio administratiboaren arteko muga.

Izan ere, uztailaren 28ko Kosta Legea garatzeko eta gauzatzeko erregelamendu orokorraren 3. artikuluen arabera, **itsas bazterra eta itsasadarrak itsas-lehorreko jabari publikoaren ondasunak dira. Zona hori, gainera, ibaietan gora zabaltzen da mareen eragina nabarmena den lekuraino.** Zona honetan sartzen dira padurak, albuferak, istingadiak, zingirak, eta orokorrean mareen gorabeheren, olatuen edo itsas ura iragaztearen ondorioz urpean geratzen diren behe-lurrak ere.

Lehorretik itsasora egiten diren gai arriskutsuen isurketei buruzko araudi orokorra ezartzen duen martxoaren 10eko 258/1989 Errege Dekretuarekin, are gehiago zehazten dira estuarioetako muga jurisdikzionalak. Izatez, ur kontinentalen eta itsasoko jurisdikzioko barne-uren arteko muga definitu da.

Dekretu horren 2. artikuluan honela definitzen dira barnealdeko urak: Estatuak **itsasoko jurisdikzioko uren barne muga** gisa ezarritako oinarritzko linea zuzenen eta kostaren artean dauden urak. Ur-ibilguen kasuan, **barnealdeko ur horiek ur kontinentalen mugaraino hedatzen dira.** Ur kontinentalen muga, bestalde, **ur-ibilguen barruan mareen eragina nabarmena den lekua** da edo marearik ez dagoenean, ur itsasoa agertzeagatik uren gazitasuna gehitzen den lekua.

Era berean, Ingurumen Kontseiluak 1994. urtean hartutako bi erabakitan honakoa eskatzen zitzaion Europako Erkidegoen Batzordeari: Europar Batasuneko **itsasertzaren** kudeaketa integraturako eta garapen iraunkorrerako estrategia proposatzea, eta itsasertzaren barruan itsas bazterrak, **estuarioak** eta kostaldeko urak eta **itsasoaren eragina hedatzen den mugarainoko lur-zerrenda** sartzea.

Argi geratzen da, beraz, zein den Kosta Legeak arautzen duen espazio administratiboa eta zein den Uren Legeak arautzen duena. Horrez gain, argi geratu da itsas bazterra (jurisdikziopeko urak) ur-ibilguetan gora egiten duela mareen eragina nabarria den guneetaraino.

Kosta Legearen Aurretiazko Tituluan ezartzen denez, itsas-lehorreko jabari publikoaren kontserbazioaren bermea ezin da lortu kalifikazio juridiko hori duen zerrenda estuaren gaineko ekintza eraginkorraren bidez soilik; ezinbestekoa da zerrenda pribatu mugakidearen gainean jardutea. Hori dela eta, jabari hori **babesteko zortasuna** konfiguratu da lur mugakideetan, eta, zortasun horri esker, hain sentikorra den ingurune natural horren babes egokia lortu nahi da. Horretarako, ingurune horretarako kaltegarriak izan daitezkeen jarduerak eta eraikuntzak debekatu egiten dira orokorrean.

Zortasunaren izaera zorrotzik ez duen **eragin-zona** ere definitzen da, non plangintza egilearentzat hainbat jarraibide definitzen diren. Hori guztia Autonomia Erkidegoek ingurumen arloan ezartzen dituzten babes-neurri osagarrien kalterik gabe eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, lurralde-antolamenduko eta itsasertzeko eskumenen kalterik gabe.

Erregelamendu horren 18., 19. eta 203. artikuluetan ezartzen denez, itsas-lehorreko jabari publikoaren esparrua eta hura babesteko zortasun-zona Estatuko Administrazioak egindako **mugapenaren** bidez definitzen da –betiere Autonomia Erkidegoen, besteak beste, aurretiazko txostenarekin–.

3.1.2 Irizpide teknikoak

Itsasertzeko espazioa definitzeko irizpide teknikoari dagokionez, honela definitu dute hainbat egilek itsasertzaren eragin-zona: itsasertzaren jardueretako batzuen eragina nabaritzen den lehorreko eta itsasoko espazioa edo itsasertzean eragina izan dezaketen jarduera batzuen espazioa da (hala nola hiri- edo industria-jatorriko isurketak, garraio-azpiegiturak, kostara erraz iristen diren hiri-zonak, eta abar). Definizio horren indarrez, ondorio guztietarako espazio geografiko berezia sortzen duen zabalera aldakorreko zerrenda bat sortzen da.

“Kosta” kontzeptua, zentzurik zabalenean, hartzen badugu, itsas eragina duen lehorreko eremua eta lehorreko eragina duen itsas zona (zona neritikoa) sartzen da kontzeptu horren barruan. Izan ere, itsas ingurunearen eta lehorreko ingurunearen egoerak eta ezaugarriak bi noranzkoetan dute eragina eta, horrenbestez, ezinbestekoa da bi noranzkoak kontuan hartzea esparru horren kudeaketa integral egokia egingo bada –Lurraldearen Arloko Plan honetan egin den bezalaxe–.

Itsas ingurunearen izaera dinamikoa dela eta, itsasertzeko zenbait tarte edo zona sistema guztiz konplexuak dira zentzu guztietan, itsas sistemaren eta lehorreko sistemaren arteko muga baitira eta bi sistemen ezaugarriak baitituzte.

Lurraldearen ikuspegitik, itsasertzeko espazioan hiru esparru bereiz daitezke:

- a) Lehorreko ingurunea: itsasertzaren dinamikak baldintzatzen dituen prozesu naturalen eta sozio-ekonomikoen eraginpean dagoen zona. Kosta Legeak arautzen duen espazio administratiboaz askoz harantzago doa, eta bat dator, gutxi gorabehera, kostarekin eta/edo estuarioekin muga egiten duten udalerrien lurralde osoarekin –edo kostatik eta/edo estuarioetatik oso hurbil dauden udalerrien lurralde osoarekin–.
- b) Trantsizioko inguruneak: itsas dinamikarekin zuzenean lotzen den zona da, hots, itsaslabarrek, hondartzek, dunek, itsasadarrek eta abar osatzen duten sistema da, eta gutxi gorabehera, bat dator Kosta Legeak arautzen duen espazio administratiboarekin.
- c) Itsas zerrenda: Lurraldearen Arloko Plan honetan, berrogeita hamar (50) metrora arteko sakonerako marea azpiko eremua hartu da.

Lehentxeago adierazitako irizpideek agerian uzten dute oso zaila dela finkatzea Planaren zehaztapenen eraginpean dagoen eremuaren aurretiazko muga batzuk.

Hori dela eta, Itsasertza antolatu eta babesteko Lurraldearen Arloko Plan hau idaztean, hasiera batean (informazio eta diagnostikoko fasean) azterketa-esparru zabala hartu da aintzat, hots, itsasertzaren dinamikaren eraginpean dauden elementu naturalen eta sozio-ekonomikoen eragin-eremua hartzen duena.

3.1.3 Aztergai den esparruaren definizioa

Lehorreko ingurunean itsasertzeko udalerriei dagokien lurralde osoa hartu zen azterlanaren esparru gisa. Itsasertzeko esparruaren eraginpean ez dagoen kostaldeko udalerrietako barrualdeko zona baztertzeko irizpidean oinarrituta mugatu da esparru hori, baita, kosta-lerrorik ez izanagatik ere, udalerriaren zati bat itsasertzetik hurbil eduki dezaketen eta itsasertzaren dinamikaren eraginpean izan dezaketen udalerriak barne hartzeko irizpidean ere. Dena den, mugatze hori malgua da, eta informazio eta diagnostikoko fasean aztertutako informazioaren arabera egokitu da beti.

Itsas inguruneari dagokionez, eta muga zehatzik ez duenez gero, 50 metroko sakonera duen marea eta azpimareako eremua hartu da itsas zonaren esparru gisa. Hortaz, irizpide horri jarraituz, zabalera aldakorreko zerrenda bat da.

Ingurune naturalaren azterketari dagokionez, eta unitate homogeenen kartografia lortzekotan, aurretik definitutako zona hartzen duten 1:25.000 eskalako orri guztietara zabalduta da aztergai den esparrua.

**Itsasertza antolatu eta babesteko Lurraldearen Arloko Planaren Ingurumen Inpaktuaren Baterako
Ebaluazioari buruzko Azterlana**

37-II, 37-III, 37-IV
38-I, 38-III, 38-IV
39-III
40-IV
41-III
61-I, 61-II, 61-III, 61-IV
62-I, 62-II, 62-III, 62-IV
63-I, 63-II, 63-III, 63-IV
64-I, 64-II, 64-III, 64-IV
65-I eta III

Azterketa sozioekonomikorako, aitzitik, Euskal Autonomia Erkidegoko 62 udalerri barne hartzen dira Lurraldearen Arloko Plan honek aztergai duen esparruan:

Eremu funtzionala	Izena	Azalera	Biztanleria
Bilbo metropolitarra	Abanto Zierbena	18	9036
	Barakaldo	24.3	94478
	Barrika	7.8	1230
	Berango	8.8	5311
	Bilbo	41.3	349972
	Erandio	18	22422
	Getxo	11.9	82285
	Gorliz	10.2	4486
	Leioa	8.5	28381
	Lemoiz	14.3	886
	Muskiz	20.8	6558
	Urtuella	7.7	8684
	Plentzia	6.3	3643
	Portugalete	3.2	51066
	Santurtzi	7.2	47173
	Sestao	3.5	31773
	Sopelana	8.4	10709
	Urduliz	7.8	3142
	Trapagaran	13.1	12621
	Zierbena	9.2	1215
	GUZTIRA	250.3	775071
Busturialdea-Artibai	Ajangiz	7.3	434
	Amoroto	12.9	376
	Arratzu	10.3	368
	Bermeo	34.1	16938
	Berriatua	19.8	987
	Busturia	19.6	1662
	Ea	14.2	810
	Elantxobe	1.9	443
	Forua	8	987
	Gautegiz Arteaga	13.6	843
	Gernika-Lumo	8.6	15264
	Gizaburuaga	6.3	144

**Itsasertza antolatu eta babesteko Lurraldearen Arloko Planaren Ingurumen Inpaktuaren Baterako
Ebaluazioari buruzko Azterlana**

Eremu funtzionala	Izena	Azalera	Biztanleria
	Ibarrangelu	15.6	542
	Ispaster	22.6	613
	Kortezubi	12	363
	Lekeitio	1.9	7357
	Mendexa	7.2	341
	Mundaka	4.2	1853
	Murueta	5.4	259
	Ondarroa	3.6	9732
	Sukarrieta	2.3	325
	GUZTIRA	231.4	60641
Mungia	Bakio	16.8	1727
	Gatika	17.2	1295
	GUZTIRA	34	3022
Donostia-Beterri	Astigarraga	11.5	3751
	Donostia	61.5	178377
	Errenteria	31.9	38224
	Hernani	39.8	18287
	Hondarribia	28.8	15044
	Irun	42.8	56601
	Lezo	8.5	5834
	Oiartzun	60	9179
	Pasaia	11	15962
	Usurbil	24.9	5257
	GUZTIRA	320.7	346516
Debabarrena	Deba	50.3	5185
	Mutriku	27.7	4775
	GUZTIRA	78	9960
Urola-Kosta	Aia	55.1	1610
	Aizarnazabal	6.5	531
	Getaria	10.6	2406
	Orio	9.8	4421
	Zarautz	14.3	21078
	Zestoa	43.7	3100
	Zumaia	11.3	8527
	GUZTIRA	151.3	41673
GUZTIZKOAK	Aztergai den esparrua guztira	1065.7	1236883
	EAE guztira	7234.5	2082587
	% aztergai esparrua / EAE	14.73	59.39

3.2 Baliabide naturalen eta lurzoruen egungo erabileren aprobetxamendua.

Planaren I. liburukia ia osorik zuzentzen zaio ingurune biofisikoaren eta ingurune sozio-ekonomikoaren analisiari, lurzoruen egungo erabilerak barne.

3.3 Planaren eraginpean dauden ingurumen-aldagaiak

Plan horrek itsasertzeko esparrua babesteko eta antolatzeke jarraibideak ezartzean, itsasertzeko honako ingurumen-aldagaietan du eragina:

- Biodibertsitatea
- Flora
- Fauna
- Gea
- Lurzorua
- Ura
- Paisaia
- Kultura-ondarea

3.4 Ingurumen-baliabideen identifikazioa eta balorazioa

Kontserbaziorako balioa lortzeko metodoa aplikatuz egindako balorazio guztietan hartu dira aintzat ingurumen-baliabideak:

- Landaredia
- Paisaia
- Geomorfologia
- Akuiferoen urakortasuna
- Itsas ingurunearen unitate fisiografikoak

Tipologiaren balorazioak berak elementu baliotsuen identifikazioaren adierazpidea du aldagai horietako bakoitzerako.

Ikus, ildo horretan, Planaren I. liburukiko 2.1.7.1.2., 2.1.7.2.2. eta 2.4.2. idatz-zatietan barne hartzen diren balorazioak.

Bestalde, eremuan agertzen diren baliabide kulturalak ere hartu dira kontuan, Eusko Jaurlaritzaren baliabide turistikoaren inbentarioa abiapuntu izanik.

3.5 Ingurumen-unitate homogeneousen definizioa eta ingurumen-diagnostikoa.

Aditzera eman den moduan, aztergai dugun esparruan lurraldea tratatzeko metodoa ingurumen-unitate homogeneousen mapa osatzean datza, ondoren balorazioa egiteko eta antolamendu kategoriak esleitzeko. Planaren I. liburukian luze eta zabal deskribatzen da hori guztia.

Diagnostikoari dagokionez, Planaren II. liburukia oso-osorik zuzentzen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko ingurumen-egoeraren diagnostikoa egiteari. Kapitulu horri hasiera emateko, itsasertzaren esparruko administrazio eta eskumen arloko eredu juridikoaren ondoriozko egoera deskribatu da.

Lehorreko ingurunean, euskal itsasertzaren erabilera ekonomikoari buruzko deskribapena egin da, eta estuarioen egoera nabarmendu da, itsasertzeko zonarik urrakorrenak eta garrantzitsuenak diren aldetik.

Inolako zalantzarik gabe, itsasertzaren egoera orokorraren adierazle ona da zona horien eta estuarioetako ur-bazterren egoera. Informazio-memoriari buruzko I. liburukian aditzera eman den moduan, itsasadarren ur-bazterrak itsasertzeko lehorreko ingurune berezia dira. Haatik, ingurune berezia da, bai ur-bazterrei dagokien trantsizioko ingurune motagatik –itsasadarrak itsasertzeko balio ekologiko handieneko espazioa dira–, bai gizakiak ur-bazter horietan egiten dituen erabilerengatik eta jarduerengatik.

3.5.1 Estuarioak.

Esparru horiek ingurumenaren ikuspuntutik duten interesa dela eta, ondoren trantsizioko ingurune horietarako egindako diagnostikoa jaso da –Nerbioi, Oiartzun eta Oka ibaien estuarioak izan ezik–. Bi lehenengo kasuak Plan honen antolamendu-esparruak kanpo geratzeagatik dira salbuespen, eta Oka ibaiaren kasua bertako erregulazioa Urdaibai Biosfera Erreserba erregulatzen duten tresnen mende dagoelako oso-osorik da salbuespena.

3.5.1.1 Bidasoa ibaiaren estuarioa

Hondarribiko itsasadarrak (Bidasoa ibaiaren estuarioa edo Txingudikoa) muga egiten du Frantziako Estatuarekin; hortaz, itsasadarraren ezker aldeko ertzari dagokion lehorreko ingurunearen diagnostikoa baino ez da egin. Hondarribia eta Irungo udalerriek okupatzen duten ezker aldeko ertz hori oso gizatiartuta dago, eta gehienbat hiri-lurzorua da. Continuum baten modura hedatzen da autobidearen mugako iraganbidetik Hondarribiko hiriguneraino, hots, bokaleraino. Estuarioko lur horietan, garraio-azpiegiturek, autobideak, trenbideak eta Hondarribiko Aireportuak hartzen dituzten sektore handiak ageri dira.

Dena den, estuarioan bertan hautemandako presiorik handiena bi ertzetako hiri-kokaleku handien ondoriozkoa da. Presioa handia da nutrienteen eraginari, ubideratzeari eta marearteko azalera galtzeari dagokionez. Aditzera eman behar da isurketen ondoriozko eraginik nagusia Frantziako Estatuko ertzetik datorrela; ezker aldeko ertzean, berriz,

ia isurketa guztiak ezabatu dira, eta nabarmen egin du hobera kalitateak azken urte hauetan. Oro har, ur-masaren gaineko presioa neurrizkoa da, eta ez dago elementu biologikoen gaineko ageriko inpakturik.

Bestalde, Txingudiko Plan Bereziak ematen duen babesak estuarioko espaziorik garrantzitsuenak behar bezala kontserbatzea bermatzen du; gainera, espazio degradatuak leheneratzen saiatzen da –espazio degradatu horietako 12 leheneratze-eragiketen mende daude gaur egun–.

Adierazi den bezalaxe, estuarioko ertzetan giza okupazioa oso handia da, baina azken urteetan okupaziorako joera hori eten egin da –Plan Berezia abian jarritz geroztik–. Gauzak horrela, oraingoz ez dago estuarioaren ertzetan eragina izango duen hazkunde-aurreikuspenik (ikus 3.1.4. idatz-zatia).

3.5.1.2 Urumea ibaiaren estuarioa

Urumea ibaiaren itsasadarra oso aldatuta dagoen estuarioa da. Aldaketa horretan, betelanez, mareartekoaren okupazioak eta ubideratzeak izan du eragina. Ertzetan hiri eta industria arloko jardueren eta garraio-azpiegituren okupazioa oso handia da.

Ur-masaren gainean hautemandako presioak ekaitzen gainezka bideen ondoriozkoak eta hondakin-uren isurketen ondoriozkoak dira, eta ihesak dituzte –irteeretako asko itxi egin dira–.

Informazio-memorian eman da aditzera estuarioaren azalera. Edonola ere, azalera nabarmen murriztu da betelanez ondorioz. Horrez gain, ia guztiz ubideratuta dago Loiolatik bokaleraino, eta hiri eta industria arloko isurketa ugari jasaten ditu, emari txikikoak badira ere. Horrenbestez, presioa neurrizkoa da, eta ur-masaren gaineko presio orokorra txikia da.

Estuarioaren hasieratik –Hernanin– bokalera bitartean, bizitegi eta industria erabilerako hiri-lurzoruaren garapena handia da. Hernanin, bi ertzak okupatuta daude, eta Astigarragan hiriguneak ia eskuinalde osoa okupatzen du. Donostiako udalerrian, Astigarragatik hurbilen dagoen tarte eta Martutene pareko eskuinaldea soilik daude hiri-okupaziorik gabe.

Dena den, hiru udalerrietako bakar batean ere ez da ertzak okupatzeko beste proposamenik egin (ikus 3.1.4. idatz-zatia).

3.5.1.3 Oria ibaiaren estuarioa

Oria ibaiaren estuarioan (edo Orioko itsasadarrean) ageri diren presiorik garrantzitsuenak ibaiaren azken tarte ubideratzearen ondoriozkoak dira, baita marearteko zona ugaritan betelanez egitearen ondoriozkoak, portu garrantzitsuen eta bidezko dragatzearen ondoriozkoak, eta emari txikiko zuzeneko isurketen ondoriozkoak ere. Oro har, ur-masaren gaineko presioa txikia da, eta itxuraz ez dago elementu biologikoen gaineko inpaktu handirik.

Bizitegi edo industria arloko kokalekuen ondoriozko ertzen gaur egungo okupazioa ez da oso handia. Estuarioaren hasieran, Usurbilgo hirigune txikia dago, ez da dentsitate handiko gunea, eta gehienbat eskuinaldean kokatuta dago, ur-bazterretik 100 metro ingurura.

Bokalerantz joz gero, ezkerraldean Aiako udalerria dago, estuarioaren ertzean 1.000 metro inguruko aurrealdea duena, eta parean, itsasadarraren beste aldean, estuarioan luzera bereko aurrealdea duen Orioko udalerria dago.

Iparralderantz eta bokalerantz, hiri-plangintzak bizitegiko lurzoru urbanizagarriko zona handiak aurreikusi ditu, eta batzuetan ibaiaren beraren ertzeraino iristen dira. Zona horiek, gainera, zabaldu egin dira kostarantz Urola Kostako Lurraldearen Zatiko Planean egindako proposamenetan. Bi kasuetan, Oriorako aurreikusitako hiri-garapena arazorik gabe egin daiteke, babeserako zortasun-zonak okupatu beharrik gabe (ikus 3.1.4. idatz-zatia).

3.5.1.4 Urola ibaiaren estuarioa

Urola ibaiaren estuarioko edo Zumaiako itsasadarreko presiorik garrantzitsuena Urola ibaiak eta Narrondo errekek garraitzen dituzten poluitzaileei dagokie, baita estuariora zuzenean isurtzen diren poluitzaileei ere –azken kasu horretan hiri- eta industria-isurketen ondorioz–. Estuarioaren behealdeko (Zumaiako) ubideratzea ere presio handia da, baita ur-masaren azaleraren % 21 hartzen duen kirol-portua ere. Oro har, ur-masaren gaineko presioa neurritzkoa dela uste da, eta ez du ematen elementu biologikoen gainean inpaktuak daudenik, nahiz eta duela gutxi ustekabeko isurketen ondorioz arrainak hilik agertu diren.

Estuarioak bi adar ditu, tamaina handieneko adarra Urola ibaiari dagokio eta adar txikiagoa Narrondo errekarari. Ibilgu nagusian, estuarioaren hasiera-hasieratik –Oikia parean– industria-eremu zahar samarrak daude, baita Oikiako hirigune txikia ere. Hori guztia Urola ibaiaren ezkerraldean. Bokalerantz behera eginez gero, Gorostiaga inguruan, eskuinaldean, industria-kokaleku handia dago itsasadarraren ertzean bertan.

Urola ibaian behera jarraituta, ezkerraldean, Zumaiako hirigunea dago, itsasadarraren ertzean bertan. Ur-bazterrean 2.370 metroko luzera hartzen du; lehen 1.000 metroetan industria da nagusi, eta gainerakoan bizitegi-erabilera. Eskuinaldean, aldiz, hirigunearen parean kirol-portua eta industria poligono txiki bat dago.

Narrondo erreka kasuan, bestalde, hiri-okupazioa bi ertzetan hedatzen da Urola ibaira urak isurtzen dituen gunetik uretan gora (1.440 metro eskuinaldean eta 850 metro ezkerraldean). Bi ertzetan, ur-bazterreraino bertaraino iristen da okupazioa. Hiri-okupazio horren amaieratik, jabari publiko gisa mugatutako zonaren amaieraraino (Txikiardi inguruan), udal-plangintzak zein Urola-Kostako Lurraldearen Zatiko Planean egindako proposamenek jarraipena eman nahi diote bi ertzetako hiri eta industria arloko ehunari. Edonola ere, 3.1.6. idatz zatian deskribatzen denaren arabera, babes-zortasunak 100 metro hartzen ditu, hiri-zona ez den eremu bati dagokion moduan, eta horrek guztiz baldintzatzen du proposamen horien bideragarritasuna.

Ilido horretan, aditzera eman behar da hiri-garapenerako proposatutako zona horietan, kontserbaziorako balioa txikia dela eta Inguru Hezeak antolatu eta babesteko Lurraldearen Zatiko Planak ez duela ubidea guztiz sektorizatu, Narrondo erreka itsas-lehorreko jabari publikoaren mugapenetik 400 metro uretan behera dagoen punturaino soilik sektorizatu duela –baita gaur egun estalita dauden zonetan ere–.

3.5.1.5 Deba ibaiaren estuarioa

Deba ibaiaren estuarioa oso ubideratuta dago, eta jatorrizko azalera handia galdu du. Gainera, ibaiak poluitzaile-ekarpen handiak egiten ditu, eta poluitzaile horiei estuarioan zuzenean egiten diren emari txikiko isurketak gaineratu behar zaizkie. Horrez gain, amarratze ugari eta portu txiki bat dago –haatik, estuarioa txikia izanik, haren azaleraren % 10 hartzen du–. Berriki, estuariora zuzenean egiten ziren isurketetako batzuk itsasora isurtzen duen araztegitantza bideratu dira. Oro har, ur-masaren gaineko presioa neurritzkoa da, eta, itxuraz, inpaktuak ageri dira makroalgen gainean eta inpaktu txikiagoak bentosaren eta arrainen gainean.

Ur-bazterretako okupazioa maila urriko okupaziotzat jo daiteke, nahiz eta N-634 errepidea itsasadarrarekiko paralelo bideratzen den eskuinaldeko ur-bazterretik oso hurbil itsasadarreko 6 kilometrotan. Itsasadarraren azken tartean soilik, bokaletik hurbil dagoen tartean, kokatzen dira hiri-okupazioak. Losaberriko okupazioak, bestetik, itsasadarreko ur-bazterreko 200 metro hartzen ditu, eta Debako hiriguneak berak 850 metroko ur-bazterra hartzen du, bi kasuetan itsasadarraren eskuinaldean.

Debabarreneko Lurraldearen Zatiko Planean aurreikusten diren hiri-garapen berriek zehatz-mehatz errespetatzen dute babeserako zortasun-zona, eta ez dira kokatzen itsasadarreko ur-bazterretan eraginak sor ditzaketen eremuetan.

3.5.1.6 Artibai ibaiaren estuarioa

Artibai ibaiaren estuarioak edo Ondarroako itsasadarrak oso presio antropiko handia jasaten du, ubideratuta dago itsasadarraren amaierako ia zati osoa –eta itsasadarrak 3,5 km baino ez du–. Horrez gain, hiri eta industria arloko isurketa handiak gertatzen dira. Bestalde, kanpoaldeko zona erregulartasunez dragatzen da, eta bertan amarratze ugari eta Ondarroako portu garrantzitsua daude –itsasadarraren zati handia hartzen du, % 27–. Oro har, ur-masaren gaineko presioa txikia da. Haatik, portuko zonan handiagoa da eta neurrizko presioaren muga dago –izatez, kalifikazio orokorra txikia den arren, presiorik garrantzitsuenak “neurritzko” gisa baloratu dira, eta argiak dira sortzen diren inpaktuak–.

Inpaktuak agerikoak dira, batez ere elementu biologikoena (fitoplanktonetik hasi eta makroalgetara, bentosera eta arrainetara).

Estuario horren hiri-garapenak ia oso-osorik hartzen ditu bi ertzak, itsasadarraren eskuinaldean kirol zonaren bi aldeetara dauden 300 eta 215 metroko luzerako bi zona txiki izan ezik –zona horietan ez da garapenik aurreikusi–. Mugatutako zonek –horietako batzuk behin-behinekoak dira oraindik ere– jabari publikotik 20 metrotara kokatzen dute babes-zortasuna, adierazitako bi zona horietan izan ezik. Bi zona horietan 100 metrotara kokatzen da babes-zortasuna, hiri-izaerarik ez duten zonei dagokien moduan.

3.5.1.7 Lea ibaiaren estuarioa

Lea ibaiaren estuarioa edo Lekeitioko itsasadarra ere tamaina txikikoa da. Bertan gertatzen diren presiorik handienak araztegiaren isurketen ondoriozkoak eta beste isurketa batzuen ondoriozkoak dira, baita zenbait tarte ubideratzearen ondoriozkoak eta Lekeitioko portuaren ondoriozkoak ere –azaleraren ehuneko txiki bat baino hartzen ez duen arren–.

Oro har, ur-masaren gaineko presioa txikia da eta elementu biologikoen gaineko inpaktuak ez dira agerikoak; haatik, inpaktu kimiko bat ikusi da.

Estuario txiki horren hiri-okupazioa oso txikia da, Sosuenean, ezkerraldean, dagoen zona txiki bat salbu, eta bokalean bertan itsasadarraren bi aldeetan izan ezik. Ez da zona urbanizaezinean eragina izango duen garapenik aurreikusi.

3.5.1.8 Butroe ibaiaren estuarioa

Butroe ibaiaren estuarioak edo Plentziako itsasadarrak zenbait emari txikiko hiri-isurketaren presioa jasaten du (“Abanico” zona); horrez gain, ibilguaren azken zatia ubideratuta dago, jalkinak aldatuta daude ubideko zein portuko dragatze-lanen ondorioz, estuarioan amarratze kopuru handia dago, eta itsaskiak biltzeko gehiegizko presioa egin da.

Haatik, ur-masaren gaineko presioa txikia da, eta itxuraz ez dago elementu biologikoen gaineko inpaktu garrantzitsurik.

Itsasadarraren ertzetako hiri-lurzoruen okupazio maila neurrizkotzat jo daiteke; itsasadarraren hasieran, ezkerraldean, meandroaren osotasuna okupatzen duen Isuskitzako kokalekuan datza batez ere. Edonola ere, Inguru Hezeak babestu eta antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak ur-bazterretik hurbilen dagoen zona behar bezala babesten du.

Bokaletik hurbilen dagoen zonan, Plentziako hirigunea dago, itsasadarraren eskuinaldean 2.330 metroko luzera hartzen du, eta itsasadarraren ertzeraino heltzen da. Ezkerraldean, Barrikako udalerria dago. Txipioko senaiaren bi aldeetara Musurieta eta San Telmoko hiri-metatzeak ageri dira, 670 metro eta 370 metroko aurrealdea dutenak, hurrenez hurren.

Hiri-plangintzan eta lurralde-plangintzan ez da itsasadarraren ertzetan okupatu gabe dauden beste zona batzuk garatzea aurreikusten.

3.5.1.9 Barbadun ibaiaren estuarioa

Pobeñako itsasadarra edo Barbadun ibaiaren estuarioak hiru faktoreren ondoriozko presio handiak jasaten ditu: petrolio-industria, estuarioan noizean behin isurketak sortzen dituen; estuarioaren behealdean kokatzen den abeltzaintza estentsiboa, nutrienteak gaineratzen dituen; eta araztegiko isurketak, batzuetan behar bezala funtzionatzen ez duela ematen baitu; nolana ere, ohartarazi behar da presiorik handiena (% 80) Petronor enpresaren isurketaren ondoriozkoa dela –jada kostalderantz desbideratu

dena—. Estuarioak marearteko azaleraren zati handi bat galtzea eta itsasadarraren neurrizko ubideratzea gaineratu behar da.

Oro har, presioa estuarioan txikia bada ere, inpaktuak hauteman dira makroalgen gainean (kalitate eskasa) eta, estuarioaren zonaren arabera, arrainen, bentosaren eta fitoplanktonaren gainean —dena den, neurrizko kalitatea da kalifikaziorik okerreina—.

Itsasadarraren hiri-garapenaren ondoriozko okupazio maila oso handia da. Aditzera eman behar da jatorrizko azaleraren zati txiki bat baino ez duela mantentzen, batez ere petrolio-industriak 1970eko hamarkadan estuarioko azaleraren zati handi bat okupatu zuelako. Industria horiek itsasadarraren eskuinaldean daude, eta ur-bazterretaraino okupatzen dute ibilbide osoa, bokaleko tarte txiki bat izan ezik.

Ezkerraldean bi hirigune txiki baino ez daude, San Julian —erdiko tartean— eta Pobefia —bokalean—. Horrez gain, Bilbo-Santander autobideak biaduktu handi baten bidez zeharkatzen du itsasadarra bi herri horien artean.

Hirigintza-hazkundeko aurreikuspenak Muskizko udalerriaren mendebaldean metatzen dira, estuarioaren amaieratik hurbil; alabaina, itsasadarraren ertzetan eraginik ez sortzeko behar bezain urrun aurreikusi dira.

3.5.2 Antolamendu-ereduaren edo plangintzaren ondorioz lurraldean sortzen diren eraginak.

Diagnostikoaren zati garrantzitsua dira antolamendu-tresnetan edo plangintzako tresnetan ezartzen diren etorkizuneko eraginak edo aurreikusten diren eraginak; hortaz, hurrengo ataletan eragin horiek zehaztuko dira.

3.5.2.1 Antolamendu-ereduaren ondorioz lurraldean sortzen diren eraginak.

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek eta Lurraldearen Zatiko Planek osatzen eta definitzen duten lurralde-antolamenduko ereduak eragin nabarmenak ditu Erkidegoko itsasertzaren gainean, eta gainerako tresnek bere egin behar dute lurralde-antolamenduko eredu hori. Eragin adierazgarrienen artean hauek nabarmendu behar dira:

a) Eremu metropolitarrak finkatzea. Erkidegoko bi hiri-kokagunerik nagusienak itsasertzean kokatzen dira, eta Lurraldearen Zatiko Planen proposamenek indartu egiten dituzte bi kokagune horien funtzioak.

a.1) **Bilboko eremu metropolitarra**, hazkunde demografikorik espero ez bada ere, berriro antolatu da azpiegiturei eta erabilera orokorreari dagokienez. Eremu degradatuak berriztatzeko eragiketak ez ezik, ezkerraldean industria finkatzea eta eskuinaldean bizitegia finkatzea sustatuko da. Bertako biztanleriaren olgeta-erabileraren eta bigarren bizitegiko erabileraren premien ondoriozko presioa oso agerikoa da gaur

egun, eta, are gehiago, gehituko da Lurraldearen Zatiko Planak sustatzen duen okupazio-eredua finkatzen joan ahala. Getxo – Gorliz korridorea konplexutasun bereziko eremutzat jo da.

a.2) **Donostiako eremu metropolitarraren** egoera, Bilbokoaren aldean, hasi berriagoa da. Donostiaren muga topografikoek eraginda, inguruko herrietako haran-hondoetan industria-poligonoen oso kolonizazio handia gertatu da. Donostiak ageriko jarraitasun fisikoa du Pasaiaiko portuarekin, Errenteriarekin eta Lezorekin, bertan metatzen da eremuko industria-kontzentrazio handiena. Bestalde, **Bidasoa Beherean**, Irun eta Hondarribiko udalerriek hiri-metatze handia hartu dute.

Lurraldearen Zatiko Planak, eremu metropolitarraren honen antolamenduan, Donostia eta Pasaiaiko hazkundera mugatzearen alde eta, batez ere, Irunen eta Hondarribian kokatzearen alde egin du. Era berean, Lezo eta Irun artean gaur egun hasi berria den industria-jardueretarako eremua osatzea sustatu da. Hortaz, Urumeatik Bidasoara bitarteko hiri-korridore handia sortuko litzateke, itsasertzera espazio libre natural handia izango duena (Jaizkibel).

b) Bigarren bizitegi sendoa. Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan zein artezpide horiek garatzen dituzten Lurraldearen Zatiko Planetan, lotu egiten dira jarduera turistikoak eta bigarren etxebizitzaren fenomenoak. Hortaz, bertako eskaria soilik jorratzen da, eta ez berezko jarduera turistikoak hartzeko ahalmena. Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek diote Euskadin bigarren etxebizitzaren fenomenoak garapen turistikorako aurreko urratsa direla, edo bigarren etxebizitza etengabeko hiri-kokalekuen eta pasoko edo hoteleko turismoaren jardueren arteko zubia direla.

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen babesean, bigarren etxebizitza sustatzeko ekintzak iradoki dira hainbat udalerritan. Are gehiago, udal-plangintzan jaso beharko diren bigarren etxebizitzako lurzoruen eskaintzarako gehieneko mugak ezartzea agindu dute Lurraldearen Zatiko Planek. Era berean, Lurraldearen Zatiko Planei dagokie esparru funtzional bakoitzaren azpiegitura turistiko egokia proposatzea (instalazioak, portuak, parke tematikoak, ibilbide tematikoak eta turistikoak, kanpinak, eta abar).

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek honako orientabideak eman dituzte:

- Donostia-Beterriko eta Urola-Kostako eremu funtzionaletako azpiegitura turistikoa sustatuko da.
- Busturialdea-Artibai eremu funtzionaleko kostaldeko herrietako plangintzek bideratuko dituzte bigarren etxebizitzako garapenak, eta gaur egun dauden egiturazko eta zurruntasunezko arazoak ebazten saiatuko dira.

- Busturialde-Artibai, Mungia eta Bilbo Metropolitarraren eremu funtzionalerako kostaldeko lurraldeak batez ere Bilbo Metropolitarraren eskariaren hartzailerako gisa espezializatu daitezkeen bultzatuko dira.

Horrenbestez, eremu jakin batzuk bigarren etxebizitzako erabilerak hartzeko duten ahalmena ematen dute aditzera Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek, ingurumen arloko beste iritzi batzuen gainetik. Alderdi hori argi eta garbi islatzen da Bilbo Metropolitarraren Lurraldearen Zatikiko Planean (Getxo-Plentzia eremuan) zein Donostia-Beterriko, Urola-Kostako eta Debabarreneko Lurraldearen Zatikiko Planeko kostaldeko udalerrietan.

3.5.2.2 Plangintzaren ondoriozko eraginak

Lurraldearen Zatikiko Planek adierazten dituzten bizitegi eta industriarako lurzorua kokatzeko proposamenen azterketa alderatuari esker, eta udalerrietako hiri-plangintzetako lurzoruen sailkapenei eta kontserbaziorako ingurumen-balioaren adierazleari esker, hauteman dezakegu zein neurritaraino diren koherente sustatzen den antolamendu-eredua eta hirigintza-erregulazioko eredua.

3.5.2.2.1 Lurraldearen Zatikiko Planen antolamendu-ereduaren ondoriozko eraginak.

Oro har, Lurraldearen Zatikiko Planek bizitegi-erabilerak eta industria-erabilerak hedatzeko aurreikusten dituzten eremuen ondorioz eragin larririk ez dagoela eman daiteke aditzera, betiere Plan honen antolamendu-proposamenari dagokionez. Izatez, proposamenek, orokorrean, kontserbaziorako interes handieneko eremuak, hots, itsasertzetik hurbilen daudenak, edozein presioz babesteko joera dute.

Bilbo Metropolitarraren eremu funtzionalean, proposamenetako bakar batek ere ez du babes bereziko zonetan edo ekosistemak hobetzeko zonetan eraginik –zona horiek bi tresnen esparru komunean definitu dira–.

Busturialdea-Artibaiko eremu funtzionalean kasu hauek antzeman dira:

Lekeitzio. Lekeitioko udalerrian, udalerriaren ipar-mendebaldean, Eguzki Begi deritzan ingurunean, dentsitate handiko bi bizitegi-eremu proposatu dira, 3,6 ha eta 3,2 ha-koak hurrenez hurren. Bi eremu horiek ekosistemak hobetzeko eremu batean dute eremua, 3 ha-tan gutxi gorabehera. Ekosistema hobetzeko eremu horren azaleraren % 20an dute eragina, hain zuzen ere.

Ondarroa. Ondarroako udalerrian, Saturrarango hiri-hondartzaren hego-mendebaldean, 9,1 ha-ko dentsitate ertaineko bizitegi-eremua proposatu da, eta eremu horrek eragin oso txikia du ekosistemak hobetzeko eremu batean. Zertxobait hegoalderago, GI-638 errepidearen mendebaldean, 2,3 ha-ko dentsitate txikiko beste bizitegi-eremu bat proposatu da, eta horrek ere ekosistemak hobetzeko eremu horren zati txiki batean du eragina.

Mungiako eremu funtzionalean, proposamenetako bakar batek ere ez du babes bereziko zonetan edo ekosistemak hobetzeko zonetan eraginik –zona horiek bi tresnen esparru komunean definitu dira–.

Donostia-Beterriko eremu funtzionalean, berriz, egin nahi den Pasaiaiko kanpoaldeko portuaren ondoriozko eragina soilik hauteman da –azpiegiturei buruzko idatz-zatian aztertuko da eragin hori–.

Debabarreneko eremu funtzionalean arazo hauek hauteman dira:

Deba. Debako hondartzaren hegoaldean, Buenos Aires deritzan ingurunearen (iparraldean) eta Santiago ingurunearen (hegoaldean) artean 7,5 ha-ko dentsitate txikiko bizitegi-eremua proposatu da. Eremu horrek, ipar-ekialdeko zatian, ekosistemak hobetzeko eremu batean du eragina, 6.000 m² ingurutan, eta erdialdeko zatian ekosistemak hobetzeko beste zona batean du eragina, 3.000 m² ingurutan.

Mutriku. Mutrikuko udalerrian, portuaren mendebaldean, Motril deritzan ingurunean, eta mendebaldean, Korda deritzan ingurunean, dentsitate txikiko bizitegi-proposamenak egin dira, ekosistemak hobetzeko bi eremutan eragina dutenak. Lehenak 5,2 ha-ko hedadura du, eta hobekuntza-eremuk 0,3855 ha-tan du eragina. Bigarrenak 21,6 ha-ko azalera du eta ekosistemak hobetzeko eremuaren 0,8794 ha-tan du eragina, hau da, eremu horren azaleraren % 87,05ean.

Mutriku. Udalerrri horretan bertan, portuaren hegoaldean, Arritzeta ingurunean, 42,3 ha-ko dentsitate txikiko beste proposamen bat egin da. Dena den, eremu horrek ekosistemak hobetzeko hiru eremutan du eragina. Oso-osorik hartzen du horietako bat –ekialdean dagoena–, bigarrena –erdian dagoena–, berriz, % 96an hartzen du, eta mendebaldeko dagoena % 38,7an.

Urola-Kostako eremu funtzionalean arazo hauek hauteman dira:

Zumaia. Zumaiaiko udalerrian, Santio Txikito hondartzan, Larraondoko Erriberak deritzan ingurunean, 52 ha-ko dentsitate txikiko bizitegi-eremua proposatu da. Eremu horrek oso-osorik hartzen du ekosistemak hobetzeko eremu bat, eta neurri txikiagoko eragina du Txikiardiko zonan zertxobait hego-mendebaldeko dagoen ekosistemak hobetzeko beste eremu batean.

Laburbilduz, Bizkaiko kostaren kasuan, ez dira kontserbaziorako balio berezirik duten zonak hartzea planteatzen Bilboko itsasadarraren eskuinaldean bizitegi-zonak zabaltzeko eta itsasadarraren ezkerraldean industria garatzeko. Gauza bera esan daiteke proposatzen diren gainerako garapenekin, aipatu ditugun Ondarroako eta Lekeitioko kasuak izan ezik –edonola ere, horiek ere ez dute babes bereziko zonetan eraginik–.

Haatik, Bilbo-Getxotik Plentzia-Gorlizera bitartean sustatzen den konurbazioak kostaldeko aurrealde horretan guztian giza presioa guztiz finkatzea ekarriko du, eta epe laburrean-ertainean eragina izango du espazio natural interesdunetan, eta ez

horrenbeste bizitegi-erabileren ondorioz –oraingoz baztertu egiten baitira–, baizik eta aisialdirako eta olgetarako espazioen eskari gero eta handiagoaren ondorioz. Izan ere, Lurraldearen Zatiko Planak parke metropolitarrako funtzioa ematen die eremu horiei, eta agerian geratzen da zein orientabide eman nahi zaie.

Gipuzkoako itsasertzari dagokionez, egoera oso bestelakoa da Donostia-Bidasoa Behereko sektorearen eta mendebaldeko kostaldeko guneen artean.

Donostia – Errenteria – Pasaia – Lezo udalerrien inguruan sortu den espazio metropolitarrak hedatzeko aukera mugatuak ditu, ia guztiz hartuta baitaude horretarako egokiak diren ia espazio guztiak. Etorkizunera begira hazteko aukera bakarrak barrualdeko haranetan (Astigarraga, Hernani, Lasarte) eta Bidasoa Beherean (Irun, Hondarribia) daude. Zehazki, kontserbaziorako balio txikieneko eremuak dira horiek, Txingudi salbuetsita.

Horrenbestez, eredu hori gauzatzearen ondorioz ez da espero itsasertzean ondorio negatibo larriak sortzea, baldin eta Txingudirekin batera interes handiena duen eremua –Jaizkibel– babesten bada. Jaizkibelek zeregin estrategiko garrantzitsua betetzen du espazio libre gisa, eta funtzio hori areagotu egingo da Donostia - Pasaia - Irun – Hondarribia konurbazioarekin. Ildo horretan, Pasaia Portu berriaren proposamenak eragin larriak izango ditu itsasertzeko espazio berezi horretan, azpiegiturei buruzko idatz-zatian aditzera ematen den moduan.

Mendebaldeko hiriguneen ondoko hiri-garapenen kokapenari dagokionez, berriz, jada aditzera eman dira hautemandako eraginak. Erabilera horiek hartzeko egokitzat proposatu diren eremuetatik, Orion eta Zarautzen kokatzen diren eremuek dute ingurumen-arazorik handiena.

3.5.2.2.2 Udalerrietako hiri-plangintzaren ondoriozko eraginak.

a) Hiri-lurzoruak eta lurzoru urbanizagarriak. Lurraldearen Zatiko Planekin gertatzen zen bezalaxe, udalerrietako hiri-plangintzak jasotzen duen hiri-lurzoruak eta lurzoru urbanizagarriak garatzeko proposamenaren azterketak agerian utzi du udalerrietako hiri-plangintzak ez duela gatazkarik sortzen itsasertzeko balio naturalak babesteko premiekin, interes handieneko eremuak ez baitaude eraginpean. Ingurumenaren gaineko eraginak garrantzitsuak izan daitezkeen bi puntu baino ez dira hauteman, gainerako kasuetan eraginak garrantzi txikikoak dira. Hauxe da egoera:

- Lekeitioko ingurunean, hirigintza-garapenetarako sentikortasun bereziko eremu bat hauteman da. Gaur egungo kokalekua inguratzen duten espazio guztiak kontserbaziorako oso balio handikotzat edo balio handikotzat jo dira.
- Honako gunetan hauteman dira kontserbaziorako balio handiko edo oso handiko zonen gaineko hirigintza-garapenen ondoriozko eragin partzialak eta puntualak:

* Getxoko hirigunearen mendebaldeko muturrean.

- * Plentziako hirigunearen ingurunean.
- * Bermeoko hirigunearen mendebaldeko muturrean.
- * Gernikako hirigunearen ekialdeko muturrean.
- * Debako hirigunearen ingurunean.
- * Orioko hirigunearen ingurunean.
- * Irungo hiriguneko mendebaldeko garapenetan.

b) Lurzoru urbanizaezina. Lurzoru urbanizaezinaren sailkapena lurraldearen ingurumen-baloraziora egokitzeari dagokionez, aditzera eman daiteke kontserbaziorako oso balio handia duten itsasertzaren ondoko zona gehienak modu murriztailean hartzen dituztela udalerrietako hiri-plangintzek, eta babes mailaren bat txertatzen dietela. Barrualdean, aitzitik, askotan gertatzen da oso balio handiko zonek erregimen orokorreko luzorru urbanizaezineko berezko erabileren eta jardueren erregulazioak izatea. Ingurumen-balio handiari erreparatuta hirigintza-sailkapen desegokia duten zonen artean, honako udalerrietan ageri diren zona hauek daude:

- Abantoko hirigunearen ondoko zona.
- Getxo-Plentzia korridoreko zonak.
- Ispasterreko barrualdeko mendilerroak.
- Mutriku eta Debako barrualdeko eremua.
- Debako kostaldeko eremua.
- Aizarnazabal, Zestoa, Zarautz eta Aiako barrualdeko eremuak.
- Orioko kostaldeko eremua.
- Donostiako kostaldeko eta barrualdeko eremua.
- Pasaiako barrualdeko eremua.
- Hernaniko barrualdeko eremua.

3.5.3 Azpiegituren arloan aurreikusten diren jardunen diagnostikoa

Beste azpiegituren arloan programatu diren eta itsasertzeko ingurunean eragina izan dezaketen jardunen diagnostikoa egin dute administrazio-organoek. Aztertutako plangintzen artean, beraz, sentikortzat jo diren itsasertzeko zonetan programatutako jardunak nabarmendu dira; gauzak horrela, jardun horiek gauzatzean, bidezko neurri babesleak eta zuzentzaileak hartuko dira aintzat, gauzatuko direneko ingurumen-unitateetako balioaren arabera. Horien artean portuen eta saneamenduen arlokoak nabarmentzen dira, itsasertzean eragin berezia duten aldetik.

3.5.3.1 Portuak

Portuak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana bideratzen ari dela eta, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren eta Garraio eta Herrilan Sailaren arteko Akordioa hartu da azpiegiturei dagokien diagnostikoa egiteko oinarritzko erreferentziatzat. Izan ere, Akordio horren bitartez, bateragarri egin nahi dira Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko ingurunearen kontserbazioa eta portuen plangintza.

Administrazio eskudunak planteatutako jardunez gain, arlo horretako hainbat ekimen pribatu ere abian jarri izana hartu behar da kontuan. Dena den, ekimen horiek esparru horretan eskumenik ez duten organoek abian jarritakoak direnez gero (udalerriek, eta abar), egokia ematen du dokumentu honen esparruan horien balorazioa egitea, horietako batzuk ingurumen-eragin handia izan baitezakete.

a) Sortzen duten inpaktu larriagatik **onartu ezin diren ekimenen** artean daude adierazitako Akordio horretan aipatzen ziren Txipiosko jarduna (Butroe), Plaiaundikoa (Txingudi) eta Muruetako jarduna (Urdaibaiko barrualdeko lokaztian). Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko balio handieneko itsasadarretan kokatzen dira.

b) **Larritzat** jotzen da Zarauzko itsaslabarretako ubiriko kirol-portua, eta, hala, proiektuak nahitaez txertatu beharko ditu neurri zuzentzaile egokiak. Gaur egun aurreproiektuan aurreikusten dena baino txikiagoa izan beharko du.

c) Ondoren, **neurritzko** eragina **edo** eragin **bateragarria** sortzen dutela baloratu diren hainbat jardun proposatu da. Dena den, balorazio hori berretsi egin beharko da, bai legez ezarritako ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozesuaren bitartez (hala behar duten jardunetarako), bai, gutxienez, adituen peritaje baten bitartez.

c.1) **Neurritzko** eragina duten jardunen artean hauek hauteman dira:

- Hondarribiko hareatzan (hondartzaren atzealdean) kirol-portua eraikitzea eta arrantza-portua zabaltzea.
- Zurriolako hareatzan (Donostia) Monpaseko itsaslabarraren ondoan kirol-portua eraikitzea.
- Kontxako hareatzan portua zabaltzea (kirol-dartsena).
- Zumaiaiko itsasadarraren barrualdeko lokaztian, Santixon, kirol-portua eraikitzea.

- Lekeitioko barrualdeko hareatza.
- Bilboko Abrako kanpoaldeko portua amaitzea eta zerbitzuan jartzea.

Kategoria horretan biltzen dira, beraz, Lekeition, Zumaian eta Hondarribian aurreikusten diren jardunak.

c.2) Hauek dira jardun **bateragarriak**:

- Oriaren itsasadarraren barrualdeko lokaztian, Zubipen, kirol-portua eraikitzea.
- Deba ibaiaren itsasadarraren barrualdeko lokaztian, kirol-portua eraikitzea.
- Mutrikuko portua zabaltzea.
- Ondarroako portua zabaltzea.
- Bakioko hareatzan babes-portua eraikitzea.
- Armintzako portua zabaltzea.

Bildutako informazioen indarrez, eta ondorio gisa, taula honetan islatzen da portuen arloan aurreikusten den plangintza:

Instalazio berriak		Zabaltzeak	
Gauzatuak / onartuak	Programatuak	Onartuak	Programatuak
• Getxo • Zumaia • Hondarribia	• Bakio : babes-portua • Orio (autobidearen zubiaren azpian) • Zarautz (Ubiri)	• Bilbo: kanpoko portua • Lekeitio	• Orio • Deba • Armintza • Mutriku • Ondarroa • Zarautz • Donostia • Pasaia

Donostia-Beterriko Lurraldearen Zatiko Planean eztabaidatu beharreko aukera gisa soilik jasotzen den arren, Paisaiako kostaldean Azabartzeko (hegoaldean) eta Muturruako (iparraldean) guneen artean kokatu nahi den **Pasaiako kanpoko portu** berriaren proposamena aipatu behar da berariaz.

Proposamen horrek eragin oso larria sortzen du 21,86 hektareako Babes Berezi Zorrotzeko eremu batean. Jaizkibelen kokatzen den Babes Berezi Zorrotzeko eremu horren azaleraren % 42 hartzen duenez gero, espazio natural berezi horren gainean

eragin oso larria sortuko litzateke, eta, gainera, aditzera eman dugunez, eremu hori babestu egin behar da.

Ildo horretan, aditzera eman behar da Jaizkibelgo eremu osoa Natura 2000 Sarean barne hartzeko proposatutako zona bat dela, ES2120017-Jaizkibel Garrantzi Komunitarioko Leku gisa. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak jada aditzera eman du espazio hori babesteko interesa. Horrenbestez, Plan honen iritziz garapen horren ingurumen-kostuak **onartezinak** dira.

3.5.4 Lehorreko ingurunearen gainean eragina duten esku-hartzeen laburpena eta balorazioa.

Ezin da lehorreko ingurunearen lurralde-diagnostiko orokorra egin –estuariaiena eta itsas ingurunearena izan ezik–. Aurretik hautemandako jardun bakoitzak ingurumenaren gainean duen eragina zehatz-mehatz ebaluatzen saiatuko da, aurreko kapituluan beste bi inguruneekin egin den moduan. Izan ere, lurralde-azalera oso handia da eta, edonola ere, nolabaiteko xehetasun mailarekin jorratu da jada, arloka hautemandako esku-hartzeak diagnostiko mailan deskribatzean.

Dena den, jardun horiek izan dezaketen eraginen balorazio orokorra egin daiteke ondorio gisa, eta, horretarako, nortasun juridiko-administratiboko hiru zerrendak bereiziko dira: itsas-lehorreko jabari publikoa, babeserako zortasun-zona eta aztertutako lehorreko gainerako ingurunea (eragin-zona barne hartuko duena, handiagora).

a) Itsas-lehorreko jabari publikoko zona. Zona honen inguruko bi ondorio orokor nabarmen daitezke. Batetik, kontserbaziorako balio handieneko (oso balio handiko) zerrenda da itsasertz osoan, salbuespen bakarra jada finkatuta dauden bizitegi edo industria arloko eremuak dira. Bestalde, egiaztatu ahal izan denez, ia ez dago eremu horren babesean eta kontserbazioan eragina izan dezakeen arazorik, bai azpiegitura-zuzkidurei dagokienez, bai hirigintza-garapen berrien ondoriozko eraginei dagokienez. Oro har, eta ia salbuespenik gabe, udal-plangintzek, udalaz gaindiko plangintzek eta arloko plangintzek emandako babes maila zuzena da. Ez da gatazkarik hauteman. Getaria eta Zarautz arteko kostako tarte soilik aipa daiteke, Lurraldearen Zatiko Planak indartu beharreko hiri arteko artikulazio-ardatz gisa sustatu baitu, erabilera turistikoetarako azpiegitura-zuzkidurekin (itsasertzeko pasealekua, eta abar).

b) Babeserako zortasun-zona. Azken ondorioa oso antzekoa da, ñabardura batzuk egin daitezkeen arren. Lehenik, zerrenda horri dagokion azaleraren zatirik handienak (mugapen formala eginda edo egin gabe egonik ere) kontserbaziorako balio handia edo oso handia du, balio ertaina duten tarte batzuk oso definituak ageri diren arren. Bestalde, udal-plangintzek eta udalaz gaindikoek errespetu handiz jorratzen dute zona horien erabilera, eta babes-helburuak kontuan izanik esleitzen dituzte erabilerak. Haatik, hainbat udalerriren –adibidez Lekeitioko eta Orioko udalerrien– beharrezko hirigintza-hedapenaren ondorioz, zona horren gainean zuzenean edo zeharka eraginak sortzen direla hauteman da. Era berean, bigarren bizitegiko eta dentsitate txikiko erabilera batzuk marearteke zabalgunek batzuetarantz bideratzearen ondoriozko eraginak ere hauteman dira –hala nola Mutrikuko eta Debako kostaldeko tarte batzuetan–, baita turismorako, aisialdirako eta atsedenerako intentsitate handi samarreko azpiegitura-zuzkiduren ondoriozko eraginak ere –Sopelanako kostaldeko

tartean eta hurbileko sektoreetan, esate baterako—. Edonola ere, arazoak ez dira larriak, sektore horiek ez baitatoz bat kontserbaziorako balio handiko edo oso handiko eremuekin —Lekeitioko eta Orioko lehen kasua izan ezik—.

Jarraian, babeserako zortasun-zonetan sartzen diren garapen-eremuak dituzten Lurraldearen Zatiko Planen proposamen guztiak zehazten dira. Horietan guztietan, mugapenak behin betikoak dira.

Bilbo Metropolitarrako eremu funtzionalean Lurraldearen Zatiko Planaren proposamen bakar bat ere ez dago babeserako zortasun-zonaren eraginpean.

Busturialdea-Artibaiko eremu funtzionalean kasu hauek hauteman dira:

Bermeo. Bermeoko udalerrian, portuaren ipar-mendebaldean, Aritxatxu hondartzaren zonan, 1,3 ha-ko dentsitate ertaineko eremu bat proposatu du Lurraldearen Zatiko Planak, eta eremu horretako 2.300 m² inguru babeserako zortasun-zonaren barruan dago.

Mungiako eremu funtzionalean Lurraldearen Zatiko Planaren proposamen bakar bat ere ez dago babeserako zortasun-zonaren eraginpean.

Donostia-Beterriko eremu funtzionalean Lurraldearen Zatiko Planaren proposamen bakar bat ere ez dago babeserako zortasun-zonaren eraginpean.

Debabarreneko eremu funtzionalean, honako arazoak hauteman dira Lurraldearen Zatiko Planak egindako proposamenei dagokienez:

Mutriku. Mutrikuko udalerrian, portuaren hegoaldean, GI-638 errepidearen 56 puntu kilometrikoan, 42,3 ha-ko dentsitate txikiko bizitegi-eremu bat proposatu da, eta eremu horretako 2,76 ha babeserako zortasun-zonaren barruan sartzen dira.

Urola-Kostako eremu funtzionalean arazo hauek hauteman dira:

Zumaia. Narrondo errekaaren itsasadarrean, Txikierdi, Mugerza eta Larrondoko Erriberak zonan, 52 ha-ko dentsitate handiko bizitegi-eremu bat proposatu da, eta eremu horretako 12,55 ha babeserako zortasun-zonaren barruan sartzen dira. Pixka bat ekialderago, Koitxoeko ingurunean, 25 ha-ko dentsitate handiko bizitegi-eremu bat proposatu da, eta eremu horretako 1,2 ha babeserako zortasun-zonaren barruan sartzen dira.

Zumaiako udalerrian ere, San Telmo ermitaren hegoaldean dagoen Akebano zonan, 4,3 ha-ko dentsitate handiko bizitegi-eremu bat proposatu da, eta eremu horretako hektarea bat babeserako zortasun-zonaren barruan sartzen da.

Zarautz. Zarauzko udalerriko golf-zelaiaren hegoaldean, San Pelaio ibaiaren eskuinaldean (Zubiondo zonan) 13,9 ha-ko dentsitate txikiko bizitegi-zona

proposatu da, eta eremu horretako 600 metro koadro babeserako zortasun-zonaren barruan sartzen dira.

Orio. Orioko udalerrian, hondartzako kanpinaren hegoaldean –Bilbo-Behobia autobidearen bi aldeetan zehazki–, dentsitate handiko bi bizitegi-eremu proposatu dira. Autobidearen iparraldean kokatzen denak 11 ha ditu, eta horietatik 3,52 ha babeserako zortasun-zonaren barruan sartzen dira. Bigarrenak, autobidearen hegoaldean kokatzen denak, 16 ha-ko azalera du, eta azalera horretatik 6,38 ha sartzen dira babeserako zortasun-zonaren barruan.

Hautemandako kasu guztietatik, Zumaiako Narrondoko kasuan planteatutako proposamenak soilik ematen du adierazgarria; izatez, kontserbaziorako balio handiko zonarik ez dagoenez gero, eta gaur egun hiri-okupazio maila handia duten zonak direnez gero, dagoeneko egindako mugapena berraztertzeke aukera dago, memoria justifikatzailearen 4.3.4. idatz-zatian aditzera ematen den moduan.

c) Lurraldearen gainerakoa. Azkenik, eta aztertutako lehorreko zonaren gainerakoari dagokionez, kasuistika askotarikoa eta heterogeneoa da. Hauteman diren arazoak, edonola ere, hiri-plangintzen aurreikuspenen koherentzia mailaren ondoriozkoak dira, betiere lurzoru urbanizaezina erregulatzeko emandako babes mailari dagokionez eta inguruneak kontserbaziorako duen balioari dagokionez –azpiegitura-jardun zehatzen ondoriozkoak baino gehiago, esate baterako–. Eragin nagusiak udal-plangintzako eraginei buruzko 6. liburukian ematen dira aditzera.

3.5.5 Espazio natural babestuen edo katalogatuen diagnostikoa.

II. liburukian, halaber, hainbat ingurumen-tresnetan babestutako edo katalogatutako espazio naturalen egoeraren diagnostikoa egin da. Urdaibai, Biotopo babestuak, zuhaitz bereziak, Inguru Hezeak babesteko eta antolatzeke Lurraldearen Arloko Plana, Txingudiko Plan Berezia eta Natura 2000 sarea aipatzen dira.

Aurreko paragrafoan islatzen diren irudietako batek ere babesten ez dituen arren, balio natural adierazgarria duten espazioak zehazten dira, etorkizunean presioak saihesteko babes eraginkorra behar dutenak –espazio horiek askotan sarbide zaila dute–.

Enklabe horiek, oro har, espazio naturalen katalogo irekian biltzen dira, haien baliabide naturalengatik eta kontserbazio mailarengatik. Hauek dira:

- Billano lur-muturraren eremua.
- Gaztelugatxe Donieneko eremua (gaur egun Biotopo Babestu izendatzeko izapidetan dago).
- Ogoñotik Matxixakora arteko kostaldea.
- Zumaia eta Deba arteko marearteko zabalgunea eta itsaslabarrak.

- Jaizkibelgo itsaslabarrak eta mendia.

3.5.6 Itsas ingurunearen diagnostikoa

Uren kalitatearen eta jalkinen egoera orokorraren arabera zehaztu da itsas ingurunea, estuarioetako zonetan zein kostaldeko zonetan (II. liburukiko 4. kapitulua).

Era berean, itsas ingurunearen gainean eragina duten esku-hartzeen laburpena egin da –unitate fisiografikoen arabera–, baita jardun mota batzuen ingurumen balorazioa ere. Honako ondorioak dira garrantzitsuenak:

Euskal itsasertzean alde nabarmenak daude kostaldeko zonaren eta estuarioetako zonen artean, lehenak ez daude hain degradatuta eta bigarrenek giza presio handia jasan behar dute.

Biztanleriaren dentsitatea handia izanik ere, egon badaude ondo kontserbatutako eta balio ekologiko handiko estuarioak –hala nola Txingudiko eta Plentziako barrualdeak–, baita berebiziko balioa duen estuario bat ere, Urdaibaikoa (batez ere lohietako eremua eta, hein txikiago batean, hareatza).

Aitzitik, eremurik degradatuenak portu-jardurekin lotzen diren estuarioetan kokatzen dira –hala nola Pasaia, Bilbo edo Ondarroan– edo hondakin-uren kolektore gisa erabili diren estuarioetan –Deba edo Urumea ibaien estuarioak kasu–. Kasu horietan, degradaziorako eta birsortzeko mugapenerako beste muga batzuk ere ageri dira, oso ubideratuta daude eta estuarioari lurra hartu zaio.

Eremu horiek degradatuta badaude ere, jardun erabakigarri eta eraginkor batek eremu horietako gehienak nabarmen leheneratzea ekar dezake (batez ere lehenengo hiru kasuetan). Kasu batzuetan estuarioen ahalmen ekologikoagatik gertatuko da, eta beste batzuetan, Pasaia eta Bilboko estuarioen kasuan, estuarioaren sakoneragatik gertatuko da –sakonera handiak nahasteko prozesuak, hedatzekoak eta abar errazten ditu–.

Kostaldeko zonak balio natural adierazgarria duten azalera handiak ditu –askotan sarbide zailekoak izateari esker–, baina etorkizunean presioak sor daitezten saihesteko babes eraginkorra behar dute. Jaizkibelgo itsaslabarrak, Zumaia eta Deba arteko marearteko zabalgunea eta itsaslabarrak, Ogoño eta Matxitxako arteko kostaldea (Izaro uhartea barne), Gaztelugatxe Donieneko eremua (aurrekoaren ondoan) eta Billano lur-muturreko eremua, esate baterako.

Azken aldian egindako saneamendu-jardunetako batzuek pentsaraz dezakete estuarioak leheneratzeko bidean baina kostaldeko zona horiek degradatzeko bidean izan gaitezkeela. Izatez, helburu bakarra bainurako hondartzak babestea duten kostako saneamendu-jardunek sistema bentonikoen ingurumen-narriadura eragin dezakete eta sistema bentoniko horiek leheneratzeko prozesu makal samarra dute. Ildo horretan, hasiera batean aurreikusten ziren itsaspeko hustubideak ezabatze edo kolektore huts bihurtzeko joera hauteman da. Joera hori oso negatiboa da, isurketen arazoa lekuz aldatzen da, baina ez da arazoa osotasunean konpontzen.

Kostaldeko beste azpiegitura batzuek –portuek, ubideratzeek edo itsasoko beste obra handi batzuek batik bat– arriskuan jartzen dituzte zenbait intereseko eremu. Jarduerak zuzenean kontrolatzeko tresna administratiboak eta Kosta Legeak aurreikusten dituen baimenak edo ingurumen-inpaktuaren ebaluazioak funtsezkoak eta behar bestekoak dira horien ingurumen-bideragarritasuna bermatzeko.

Itsas ingurunean dugun esperientziari esker, esan dezakegu askotan naturari kanpoko "laguntzarik" gabe jarduten uzteak aukera ematen duela zenbait zona azkar samar leheneratzeko, inpaktu jakin bat eragiten zuen kausa behin ezabatuz gero. Edonola ere, euskal kostak ekosistemarik adierazgarrienetako batzuk babesteko premiazko politika behar du, degradazioak aurrera egitea eragotziko duena eta ingurunea birsortzeko oinarriak zuzkituko dituen.

4 Inpaktuen identifikazioa eta balorazioa

4.1 Planaren helburuek ingurumenaren gainean izan ditzaketen eraginen azterketa

Azterlan honen 1.3 idatz-zatian Plana iradoki zuten printzipioak eta Planaren helburu orokorrak eta zehatzak zehazten dira.

Aditzera eman den moduan, Planaren helburu zehatzak informazio eta diagnostikoko fasean egindako lurralde-azterketan eta -diagnostikoan oinarritu dira. Horrenbestez, gutxienez ez dute ingurumen-inpaktuen arloko arazorik azaltzen eta, oro har, lagungarriak dira itsasertza babestearen ikuspegitik diseinatu diren helburu orokorrak lortzeko. Horrez gain, 1, 2, 3, 6, 8 eta 9 zenbakiko helburuek inpaktu positiboa eragiten dutela uste da, "0" alternatibaren edo ez esku hartzeko aukeraren ingurumen-egoera hobetzen baitute. Honako hauek dira helburu zehatz horiek:

1. Euskal itsasertzaren osotasuna ondare natural baliotsutzat hartzea eta, hortaz, ondare hori babesteko neurriak behar beharrezkotzat jotzea, jarduerak ezartzearen dinamika garrantzitsuaren ondoriozko inpaktuak murriztearren. Hori dela eta, ezinbestean adierazi eta mugatu behar dira itsas ingurunean zein lehorreko ingurunean kontserbatu eta babestu behar diren itsasertzeko eta kostaldeko ekosistemak eta dagozkien unitate geomorfologikoak eta paisajistikoak. Edonola ere, gaur egun dituzten edo etorkizunean izan ditzaketen ezaugarri naturalak direla eta, kontserbatzea eta babestea justifikatuta dauden ekosistema eta unitateak izan beharko dute. Hortaz, babes bereziko zonei buruzko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetako 6.8.1. artezpidea garatuko da.
2. Udal mailako planak egitean aintzat hartu behar diren oinarritzko irizpideak, arteztarauak eta arauak gaineratzea, eta indarrean dagoen udalerriko hirigintza-araudiari nagusitzen zaizkion aginduak eta arauak zehaztea. Lurzoru urbanizaezinerako arau lotesleak ezartzea, lurzoru urbanizagarrian dauden gatazkak agerian uztea, eta hiri-lurzoruko plangintzarako arteztarauak eta gomendioak ezartzea.
3. Bateragarri egitea Planak haren aplikazio esparruan proposatutako antolamendua eta kosta-legeriak itsas-lehorreko jabari publikoan eta babeserako zortasun-zonan ezarritako erabilera-erregimena.
4. Itsasertzean aplikatzen diren lurralde, ingurumen eta antolamendu natural arloko plangintzako gainerako tresnekin koordinatzea plana: Lurraldearen Zatiko Planarekin, Lurraldearen Arloko Planarekin (Inguru Hezeak, Portuak, Nekazaritza, abeltzaintza eta basoak), Urdaibaikoarekin, Espazio Babestuen planarekin, Natura 2000 Sarearekin, eta Txingudikoarekin.

5. Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planarekin (isurialde kantauiarra) koordinatzea Plana, betiere itsasadarren esparruan.
6. Administrazio eskudunari babes bereziko zonak adierazteko irizpide adostuak proposatzea, Kosta Legearen 22. artikulua eta haren Erregelamendua aplikatzearen.
7. Itsasertzaren eta haren lehorreko ingurunearen gainean esku hartzen duten Administrazioen artean (administrazio zentrala, autonomikoa eta tokikoa) lurralde eta hirigintza arloko jardunen koordinazio ezin hobe lortzea, betiere, aurretik eta nahitaez, bakoitzaren administrazio-eskumenak errespetatuz eta indarrean dauden koordinazio-mekanismoak kontuan izanik.
8. Lurraldearen Arloko Plan honen *baliabide kulturalen eta naturalistikoaren inbentarioko* elementuen arauzko tratamendurako irizpideak txertatzea.
9. Itsasertzeko hainbat eremu ingurumen arloan sentikorrak diren zonen katalogoan barne hartzeko irizpideak gaineratzea, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko 3/1998 Lege Orokorraren 51. artikuluan agertzen den definizioaren arabera.

4.2 Planaren jardunek sor ditzaketen eraginaren identifikazioa eta balorazioa

Arlo honetan, bi motako jardunak bereiz daitezke: erabilaren eta jardueren erregulazioa eta plana garatzeko jardunak.

Lehenak **ez dira nahitaezko kokalekuak edo erabilera-baimenak, erabilera-murritzapenak baizik**. Aurretik dauden murritzapenei gaineratzen zaizkien murritzapenak diren aldetik, erregulazioa aplikatzearen ondorioz sortzen diren inpaktuak positiboak dira beti, lehorreko ingurunean zein itsas ingurunean. Izatez, informazio eta diagnostikoko faseetan identifikatu ziren ingurumeneko elementurik baliotsuenei gaineratzen zaien babes erantsia dira.

Bigarrenak itsasertza babesteko helburu berekin diseinatu dira, eta, beraz, inpaktu positiboak sortzen dituzte; haatik, horietako batzuk ziurgabetasunik gabeko inpaktu negatiboak eragin ditzakete, gauzatu behar diren proiektuak eta jardunak zehaztu gabe dauden aldetik –dagokion idatz-zatian zehaztuko da alderdi hori–.

Planaren goragoko maila hierarkikoetan ez dago ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioaren mende izan den jardunik eta eraginik.

4.2.1 Inpaktuak identifikatzea eta aurreikustea

4.2.1.1 Baliabide naturalistikoak galtzea

Planaren erregulazioetan eta jardunetan ez da aurreikusten baliabide naturalistikoak galtzea edo murriztea, ez baita ez zuenean ez zeharka eraginik sortzen ekosistema, habitat eta espezie baliotsuen gainean. Aditzera eman den bezalaxe, jardun-programan aurreikusten diren jardunetako batzuk soilik sor ditzakete nolabaiteko nahasteak baliabide naturalistiko horietan.

4.2.1.2 Ingurumen arloan sentikorrak diren zonen gaineko eragina

Ez dago espazio natural babestuen gaineko eraginik, ezta Inguru Hezeak babesteko eta antolatzeke Lurraldearen Arloko Planak erregulatzen dituen zonen gaineko eraginik ere, bi kasuetan zona horietarako berariazko antolamendura jotzea erabaki baita. Natura 2000 Sareari dagokionez, Planak ordezkio gisa aplikatzea aurreikusi du, eremu horietarako berariazko antolamendu-mekanismoak onartu arte.

Gainera, honako zonak sentikortzat jotzea proposatu du Planak:

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesten duen Legearen arabera babestutako Espazio Naturalen Sarean biltzen diren espazio natural babestuak. Informazio memoriako 2.8.2.1. epigrafean (ingurune biofisikoa) zerrendatzen dira, eta informazio-mapan mugatzen dira (1 : 10.000).

- * Urdaibaiko Biosferaren Erreserba
- * Inurritzako Biotopo Babestua
- * Gaztelugatxe Doieneko Biotopo Babestua

2.- Balio aintzatetsia izanik, onartutako berariazko antolamendu-dokumentua eta, hortaz, erabilerak eta jarduerak erregulatzeko araudia duten espazioak dira.

- * Txingudi

3.- Inguru Hezeak babesteko eta antolatzeke Lurraldearen Arloko Planak antolatutako espazioak:

- * Barbadun ibaiaren itsasadarra
- * Butroe ibaiaren itsasadarra
- * Lea ibaiaren itsasadarra

- * Deba ibaiaren itsasadarra
- * Urola ibaiaren itsasadarra
- * Oria ibaiaren itsasadarra

4. Natura 2000 Sareko proposamenean barne hartzen diren espazioak

5. Beren berezitasunagatik espazio naturalen katalogo irekian biltzen diren enklabeak:

- * Billano lur-muturra
- * Ogoño eta Matxitxako arteko kostaldea
- * Zumaia eta Deba arteko marearteko zabalgunea eta itsaslabarrak
- * Jaizkibel mendia eta itsaslabarrak

6. Aurreko puntuetan adierazitako espazioetako batekin ere bat ez datozen eremuak eta Lurraldearen Arloko Plan honetako kontserbaziorako balio-mapan eta haien aplikazio-esparruan honako balioa dutenak:

- a) Lehorreko ingurunerako oso balio handia.
- b) Itsas ingurunerako balio aparta edo bikaina.

4.2.1.3 Baliabide paisajistikoen gaineko eraginak.

Ez dago baliabide paisajistikoen gaineko eraginik, paisaia funtsezko elementua izan baita kontserbaziorako eta antolamendu kategoriak ezartzeko balioa zehaztean.

4.2.1.4 Baliabideen gaineko eraginak.

Ez dago baliabide berriztagarrien eta berriztaezinen kontsumoari buruzko proposamenik; beraz, ez da horien gaineko eraginik aurreikusten.

4.2.1.5 Hondakinak sortzea edo poluzioa gehitzea.

Aurrerago zehaztuko diren jardun-programaren jardun zehatz batzuk salbu, ez da aurreikusten Plana aplikatzearen ondoriozko jardunek hondakinak sortzea.

4.2.1.6 Beste eragin batzuk.

Planean aurreikusten den jardun batek berak ere ez du eraginik giza osasunean. Era berean, ez da hiriko ingurumenaren kalitatearen gainean eraginik aurreikusten.

Planak ezarritako erabileren eta jardueren erregulazioak ez dakar zuzenean produkzio ekologikoaren galera, ezta nekazaritza-produkzioaren galera ere. Azken horri dagokionez, nekazaritza, abeltzaintza eta landazabala antolatzeke kategoriaren barruan onartzen diren jardunetako batzuk eginez gero –hala nola hiri-lurzoruko batzuk garatuz gero–, nekazaritza produktibitate hori gal daiteke. Haatik, jardun horiek diseinatzen eta baimentzen dituzten eta Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioaren prozeduraren mende dauden plangintza-tresnetan hartu beharko da aintzat alderdi hori.

Planaren jardunetatik eta proposamenetatik ez da kultura-ondarearen gaineko eragin negatiborik ondorioztatzen.

Mugaz gaindiko eraginak ere ez dira hauteman.

4.2.1.7 Planaren hainbat proposamenen ingurumen-inpaktua zehazteko zailtasunen eta ziurgabetasunen deskribapena.

Lehentxeago aditzera eman den moduan, jardun-proposamenetako batzuek eragin negatiboak sor ditzakete ingurunearen gainean, haien kokaleku zehatzaren, dimentsionamenduaren, egituren, azpiegituren, alternatiben eta abar arabera. Horietan guztietan, ingurumen-inpaktu orokorra positibotzat har daiteke, Plana iradoki duten printzipioei jarraituz eta bertako helburu orokorrak eta zehatzak kontuan izanik diseinatu baitira.

Dena den, ingurumen-inpaktu orokorra positiboa den arren, jardun batzuetan arreta berezia jarri beharko da gauzatzeko fasean edo abian jartzeko fasean sor daitezkeen eragin negatiboak konpontzeko edo zuzentzeko.

Hori dela eta, ondoren zehazten diren jardunak proiektuen Ingurumen Inpaktuaren Ebaluaziorako prozeduraren mende jartzea proposatu da.

Azpiegitura-egokitzapenari buruzko 2. azpiprograman, hondakin-uren araztegiak eraiki beharra eta hiriguneetan beste saihasbide batzuk gauzatu beharra barne hartu da.

Baliabide naturalak babesteari, hobetzeari eta kontserbatzeari buruzko 3. azpiprograman, estuario degradatuak leheneratzea (Barbadun, Butroe, Lea, Artibai, Deba, Urola eta Oria) eta degradatutako hondartzak eta kostaldeko zonak leheneratzea, hala nola Bilboko Portuko kanpoaldeko Abra, Kondemasti (Pasaia), Inpernupe (Zumaia), Ondarbeltz (Mutriku), Basordas (Lemoiz) eta Bola eta Areeta (Getxo).

Azkenik, 4. azpiprograman itsasertzaz baliatzeko eta gozatzeko interpretazio-ibilbideen ekipamendua barne hartu da.

4.2.2 Inpaktuen deskribapena

Inpaktuen deskribapena egiteko Baterako Ebaluazioari buruzko Dekretuaren Eranskinean iradokitzen den metodologiari jarraitu zaio. Aurreko epigrafeen deskribapenaren arabera bereizi dira jardunak.

Erabileren esleipenaren eta arauzko xedapenen inpaktuen deskribapena

Eraginpean dagoen baliabidea	Prob.	Zeinua	Denb.	Iraup.	Itzulg.	Lehen.	Magnit.	Eragina	Ziurt.
Baliabide naturalistikoak	H	+	P	I	IE	LE	H	Z	T
Zona sentikorrak	H	+	P	I	IE	LE	H	Z	T
Baliabide paisajistikoak	H	+	P	I	IE	LE	H	Z	T
Baliabide berriztagarriak eta berriztaezinak	E	+	G	I	IG	LG	E	ZH	T
Hondakinak sortzea	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA
Poluzioa gehitzea	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA
Giza osasuna	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA
Hiri-paisaia	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA
Produktibitate ekologikoa	H	+	P	I	IE	LE	H	ZH	T
Nekazaritza-produktibitatea	T	-	G	I	IE	LE	T	ZH	H
Kultura-ondarea	H	+	P	I	IE	LE	E	Z	T

Prob.: Gertatzeko probabilitatea (H: handia, E: ertaina, T: txikia). **Zeinua** (+: positiboa, -: negatiboa), **Denb.:** Denbora (P: Planean zehar, G: geroratua), **Iraup.:** Iraupena (I: iraunkorra, AB: aldi baterakoa), **Itzulg.:** Itzulgarritasuna (IG: itzulgarria, IE: itzulezina), **Lehen. Leheneragarritasuna** (LG: leheneragarria, LE: leheneraezina), **Magnit.:** Magnitutea (H: handia, E: ertaina, T: txikia). **Eragina** (Z: zuzenakoa, ZH: zeharkakoa), **Ziurt.:** Ziurtasuna (H: handia, T: txikia); **Orokorrean** (EA: ez da aplikatzekoa)

Nekazaritza eta abeltzaintza antolatzeko kategorian onartzen diren garapenen arteko bat eginez gero, nekazaritza-produktibitatearen gainean sor daitezkeen eraginak soilik har daitezke eragin negatibotzat. Dena den, jardun horiek ondoren garatuko badira, Baterako Ebaluazioaren prozeduraren mende egongo diren beste plangintza-tresna batzuetan definitu beharko dira. Orduan zehaztu ahal izango dira ziurtasun handiagoarekin sor daitezkeen eraginak. Edonola ere, eragin horiek neurrizkoak izango direla ulertu da.

Itsasertza antolatu eta babesteko Lurraldearen Arloko Planaren Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioari buruzko Azterlana

2. azpiprogramako inpaktuen deskribapena, azpiegitura arloko jarduna (araztegiak eta saihesbideak)

Eraginpean dagoen baliabidea	Prob.	Zeinua	Denb.	Iraup.	Itzulg.	Lehen.	Magnit.	Eragina	Ziurt.
Baliabide naturalistikoak	T	-	G	I	IE	LG	E	Z	H
Zona sentikorrak	T	-	G	I	IE	LG	E	Z	T
Baliabide paisajistikoak	T	-	G	I	IE	LG	T	Z	T
Baliabide berriztagarriak eta berriztaezinak	T	-	G	I	IG	LG	T	ZH	T
Hondakinak sortzea	H	-	G	I	IG	LG	E	Z	H
Poluzioa gehitzea	T	-	G	AB	IG	LG	T	Z	T
Giza osasuna	T	-	G	AB	IG	LG	T	Z	T
Hiri-paisaia	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA
Produktibitate ekologikoa	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA
Nekazaritza-produktibitatea	T	-	G	I	IE	LE	T	Z	H
Kultura-ondarea	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA

Prob.: Gertatzeko probabilitatea (H: handia, E: ertaina, T: txikia). **Zeinua** (+: positiboa, -: negatiboa), **Denb.: Denbora** (P: Planean zehar, G: geroratua), **Iraup.: Iraupena** (I: iraunkorra, AB: aldi baterakoa), **Itzulg.: Itzulgarritasuna** (IG: itzulgarria, IE: itzulezina), **Lehen. Leheneragarritasuna** (LG: leheneragarria, LE: leheneraezina), **Magnit. Magnit. Magnit. Magnit.** (H: handia, E: ertaina, T: txikia). **Eragina** (Z: zuzenakoa, ZH: zeharkakoa), **Ziurt.: Ziurtasuna** (H: handia, T: txikia); **Orokorrean** (EA: ez da aplikatzekoa)

Aurreko taulan islatzen diren eragin negatibo guztiak bateragarritzat jo dira.

3. azpiprogramaren inpaktuen deskribapena, espazio degradatuak leheneratzea (estuaria eta hondartzak)

Eraginpean dagoen baliabidea	Prob.	Zeinua	Denb.	Iraup.	Itzulg.	Lehen.	Magnit.	Eragina	Ziurt.
Baliabide naturalistikoak	H	+	G	I	IE	LE	E	Z	H
Zona sentikorrak	H	+	G	I	IE	LE	T	Z	H
Baliabide paisajistikoak	H	+	G	I	IE	LE	E	Z	H
Baliabide berriztagarriak eta berriztaezinak	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA
Hondakinak sortzea	H	-	G	AB	IG	LG	E	Z	H
Poluzioa gehitzea	E	-	G	AB	IG	LG	T	Z	H
Giza osasuna	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA
Hiri-paisaia	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA
Produktibitate ekologikoa	H	+	G	I	IE	LE	E	Z	H
Nekazaritza-produktibitatea	E	-	G	I	IE	LE	T	Z	T
Kultura-ondarea	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA

Prob.: Gertatzeko probabilitatea (H: handia, E: ertaina, T: txikia). **Zeinua** (+: positiboa, -: negatiboa), **Denb.: Denbora** (P: Planean zehar, G: geroratua), **Iraup.: Iraupena** (I: iraunkorra, AB: aldi baterakoa), **Itzulg.: Itzulgarritasuna** (IG: itzulgarria, IE: itzulezina), **Lehen. Leheneragarritasuna** (LG: leheneragarria, LE: leheneraezina), **Magnit. Magnit. Magnit. Magnit.** (H: handia, E: ertaina, T: txikia). **Eragina** (Z: zuzenakoa, ZH: zeharkakoa), **Ziurt.: Ziurtasuna** (H: handia, T: txikia); **Orokorrean** (EA: ez da aplikatzekoa)

Itsasertza antolatu eta babesteko Lurraldearen Arloko Planaren Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioari buruzko Azterlana

Jardunak gauzatzeko fasean, hondakinak sortzeari, poluzioa gehitzeari eta nekazaritza-produktibitatea galtzeari dagozkion magnitude txikiko inpaktuak sortuko dira. Inpaktuak neurrizkoak izango dira beti.

4. azpiprogramaren inpaktuen deskribapena, itsasertza interpretatzeko ibilbideen ekipamendua.

Eraginpean dagoen baliabidea	Prob.	Zeinua	Denb.	Iraup.	Itzulg.	Lehen.	Magnit.	Eragina	Ziurt.
Baliabide naturalistikoak	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA
Zona sentikorrak	T	-	G	I	IG	LG	T	Z	T
Baliabide paisajistikoak	T	-	G	I	IG	LG	T	Z	T
Baliabide berriztagarriak eta berriztaezinak	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA
Hondakinak sortzea	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA
Poluzioa gehitzea	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA
Giza osasuna	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA
Hiri-paisaia	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA
Produktibitate ekologikoa	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA
Nekazaritza-produktibitatea	T	-	G	I	IG	LG	T	Z	T
Kultura-ondarea	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA	EA

Prob.: Gertatzeko probabilitatea (H: handia, E: ertaina, T: txikia). **Zeinua** (+: positiboa, -: negatiboa), **Denb.:** Denbora (P: Planean zehar, G: geroratua), **Iraup.:** Iraupena (I: iraunkorra, AB: aldi baterakoa), **Itzulg.:** Itzulgarritasuna (IG: itzulgarria, IE: itzulezina), **Lehen.** Leheneragarritasuna (LG: leheneragarria, LE: leheneraezina), **Magnitudea** (H: handia, E: ertaina, T: txikia). **Eragina** (Z: zuzenekoa, ZH: zeharkakoa), **Ziurt.:** Ziurtasuna (H: handia, T: txikia); **Orokorrean** (EA: ez da aplikatzekoa)

Jardunak gauzatzeko fasean, baliabide paisajistikoei, zona sentikorreiei eta nekazaritza-produktibitatea galtzeari dagozkion magnitude eta ziurtasun txikiko inpaktuak sortuko dira. Kasu guztietan inpaktuak bateragarriak dira beti. Edonola ere, ez da inpakturik gertatuko diseinua modu egokian egiten bada.

5 Neurri babesleen, zuzentzaileen eta konpentsatzaileen proposamena.

Inpaktuen eragin txikia eta horien gainera ziurtasun maila kontuan izanik, ez da Planean jada ezarritakoez bestelako inolako neurri babesle, zuzentzaile edo konpentsatzaile osagarriak proposatu.

Dena den, plana indarrean jarri ondoren, egin behar diren bestelako planak eta programak diseinatzeko irizpideak eta arteztarauak ezarri dira.

5.1.1 Beheragoko mailako planak edo programak diseinatzeko irizpide eta arteztarau orokorrak

Beheragoko mailako planak diseinatzeko aplikatu beharreko irizpide eta arteztarau orokorrak Planaren IV. liburukian biltzen den araudiaren aplikazio zorrotzean oinarritu beharko dute.

Haatik, egitura iraunkorrak ezartzea eta, hala, lurraldea okupatzea eskatuko duten jardunak diseinatzeko –eta batez ere hirigintza-diseinu berriak egitean–, ezarpen berriak kostaldeko lerrotik urrundu behar direla aintzat hartu behar da, bai kostaldeko ertzetatik urrun, bai itsasadarren ertzetatik urrun –ahal izanez gero–.

5.1.2 Ondoriozko ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioetan edo ebaluazio bereizietan sartzeko irizpideak.

Plan honen ondoren, hiri-plangintza garatzen duten tresnei egin behar zaizkien baterako ebaluazioetan honako alderdiak justifikatu eta baloratu beharko dira:

- Plan honen antolamendu kategoriak hiri-lurzoru bidez eta lurzoru urbanizagarri bidez okupatzeko proposamena.
- Hiri-okupazioko proposamenek kostako lerroarekiko gutxienez gorde behar dituzten distantziak, kostaldeko ertzetan zein itsasadarretako ertzetan.
- Hiri-okupaziorako proposatutako zonen kontserbaziorako balioa.
- Lurraldearen Antolamendurako Arteztarauen 3. Eranskineko interes naturalistikoko eremuak udal-plangintzan barne hartzearen kontrola.

Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioari buruzko Azterlan honetako 4.2.1.7. idatz-zatian adierazitako jardunei egin beharreko ingurumen-azterlan bereizietan, arreta berezia jarriko zaie alderdi hauei:

- Lur-mugimenduen kontrolari.
- Kontserbaziorako balio handia duten zonak saihestuko dituen diseinuari.
- Erraz mugi daitezkeen egitura bigunen bidezko diseinuari.
- Zaraten kontrolari eta obren aldi baterakotasunari.
- Lur gaineko eta lurpeko uren poluzioa kontrolatzeari
- Sarbidea eta bisitagarritasun onargarria kontrolatzeari

6 Planaren eraginen ikuskapen-programa.

Ikuskapen-programa honen helburua izango da Itsasertza antolatu eta babesteko Lurraldearen Arloko Planaren jardun-programan finkatutako babeserako eta garapenerako helburuak betetzen diren kontrolatzea.

6.1 Kontrol-helburuen definizioa.

Hauek dira ikuskapen-programaren helburuak:

- Babes bereziko eta ingurumen-hobekuntzako zonak babestea
- Jardun-programak garatzea

6.2 Jarraipenaren mende egon behar duten eta eraginpean dauden ingurumen arloko sistemen, alderdien edo aldagaien identifikazioa.

Hauek dira jarraipenaren mende egon behar duten Planaren sistemak eta alderdiak:

- Itsasertzeko uren kalitatea
- Itsasadarretako uren kalitatea
- Kontserbaziorako balio handia duten zonen babesa
- Babes Berezia eta Ingurumen Hobekuntza kategorien zaintza
- Estuarioen eta haien ertzen zaintzea
- Jardun-programan biltzen diren administrazio-jardunen garapena
- Jardun-programan biltzen diren azpiegiturak egokitzeko jardunen garapena
- Jardun-programan biltzen diren baliabide naturalak babesteko eta hobetzeko jardunen garapena

- Jardun-programan biltzen diren erabilera publikoa sustatzeko jardunen garapena
- Jardun-programan biltzen diren ikerketa zientifikoko jardunen garapena

6.3 Adierazleen jarraipenerako beharrezko datu kuantitatiboak eta kualitatiboak finkatzea.

Aurreko idatz-zatian adierazitako epigrafeetako bakoitzean, honako datu hauek kontrolatu beharko dira:

6.3.1 Uren Kalitatea

Kostaldeko zein itsasadarretako uren kalitatearen bilakaera kontrolatzeko, jarraipena eman beharko zaie Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzako Plangintza Hidrologikoko Bulegoak egiten dituen egoera ekologikoa kalifikatzeko lanei. Izan ere, lan horietan lehen kalifikazioa egin da, eta bilakaera-aurreikuspenak planteatu dira, Europako legeriaren ondoriozko xedapenen arabera.

Kontrol hori behar bestekoa da planteatutako helburuak betetzeko.

6.3.2 Kontserbaziorako balio handiko zonak eta Babes Berezia eta Ingurumen Hobekuntza kategoriak zaintzea

Bi kasu horietan, Planaren planoetan islatzen diren unitate guztiak kontrolatu behar dira.

Horretarako, urtean behin aztertuko dira zona horietan edo haien hurbileko ingurunean eragina duten hiri-plangintzako aldaketak.

Bi urtean behin kontrolatuko da zona horietan eragina duten garraio-azpiegituren garapena.

6.3.3 Estuarioak eta haien ertzak zaintzea

Plan honen oinarritzko helburutzat jotzen da estuarioak babestea. Estuarioetan edo haien ertzetan itsasertzeko eremu garrantzitsu horien errealitate fisikoa aldatzen duten

jardunak gara daitezkeenez gero, bi urtean behin aztertu eta zehaztuko dira alderdi hauek estuario bakoitzerako:

- Estuarioaren guztizko azalera
- Marearteko zonen azalera
- Azpiegituren edo hiri-lurzorua okupazioa oso handia duten ertzen luzera.

Alderdi horiek hartu beharko dira aintzat Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzako Plangintza Hidrologikoko Bulegoak etorkizunean egingo dituen egoera ekologikoa kalifikatzeko lanetan.

6.3.4 Jardun-programako administrazio jardunak egitea

Idatz-zati honetan jarraipen-programa honetan kontrolatu behar diren administrazio-jardunak zehazten dira, baita kasuak kasu aplikatu beharreko adierazleak eta horiek neurtzeko aldizkotasuna ere.

Itsas-lehorreko jabari publikoaren mugapenak onartzea. Urtean behin kontrolatuko da mugapenen egoera: behin betikoak, aldi baterakoak eta proiektuan daudenak. Mugatzearen mende dagoen euskal kostaldearen guztizko luzerari dagokionez gutxi gorabehera duen ehunekoa adierazi beharko da.

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 51. artikulua araberako ingurumen arloko zona sentikorren mugapena. Katalogoa onartzeko garaian, Planean proposatutako zona guztiak gaineratu direla kontrolatuko da. Helburu horren betetze mailaren berri emango da.

6.3.5 Jardun-programako azpiegiturak egokitzeko jardunen garapena

Idatz-zati honetan jarraipen-programa honetan kontrolatu behar diren jardunak zehazten dira, baita kasuak kasu aplikatu beharreko adierazleak eta horiek neurtzeko aldizkotasuna ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko arazketa eta saneamendu arloko koordinazioarako Plan Zuzentzailea idaztea. Plan Zuzentzaile hori onartzeko egin diren administrazio-jardunen berri emango da bi urtean behin.

Hondakin-uren araztegien eraikuntza. Urtean behin kontrolatuko da itsasertzeko esparruko arazketa eta saneamenduko jardunen egoera. Planean gaur egungo egoerari buruz ematen den informazio maila bera izan beharko du gutxienez.

6.3.6 Jardun-programako baliabide naturalak babesteko eta hobetzeko jardunen garapena

Idatz-zati honetan jarraipen-programa honetan kontrolatu behar diren jardunak zehazten dira, baita kasuak kasu aplikatu beharreko adierazleak eta horiek neurtzeko aldizkotasuna ere.

Lurraldearen Antolamendurako Arteztarauen 3. Eranskineko interes naturalistikoko eremuak udal-plangintzan barne hartzea. Plangintzaren hurrenez hurreneko aldaketetan eremu horiek barne hartzen direla kontrolatu beharko da. Horretarako, urtebete horretan onartutako plangintzen txostena eta jardunaren betetze mailaren txostena egingo da urtean behin.

Baliabide naturalak antolatzeke plana idaztea eta espazioak Euskal Autonomia Erkidegoko espazio babestuen sarean sartzea. Bi urtean behin egingo da helburu hori betetzeko administrazio-jardunak bilduko dituen txostena.

Estuarioetako espazio degradatuak leheneratzea. Estuarioetako espazio degradatuak leheneratzeko jardunen programa ikuskatzeko, leheneratu beharreko azalera kontrolatuko da. Horretarako, urtean behin jakinaraziko da zer administrazio-jardun jarraitzen zaion azpiprograma honen jarduerak egitean. Edonola ere, jardun bat aurreikusi deneko estuario bakoitzeko jakinaraziko da (Barbadun, Butroe, Lea, Artibai, Deba, Urola eta Oria).

Hondartza eta kostaldeko zona degradatuak leheneratzea. Aurreko kasuan bezalaxe, leheneratutako azalera kontrolatuz egingo da ikuskapena. Bestalde, azpiprograman aurreikusten den zona bakoitzerako jarduerak egiteko administrazio-jardunei buruzko urteko txostenak egingo dira: Bilboko Portuko kanpoaldeko Abra, Kondemasti (Pasaia), Inpernupe (Zumaia), Ondarbeltz (Mutriku), Basordas (Lemoiz) eta Bola eta Areeta (Getxo).

Landare-estaldura leheneratzea eta kontserbatzea. Jarduera hori kontrolatzeko, aldiz, leheneratutako ur-bazterreko landarediaren luzera eta baso-berritutako zonen azalera kontrolatuko da urtean behin. Dena den, jarduera hori aurreikusi den zona bakoitzaren erreferentzia zehatza egingo da.

6.3.7 Jardun-programan biltzen diren erabilera publikoa sustatzeko jardunen garapena

Jarraipen-programa honetan kontrolatu behar diren jardunak zehazten dira idatz-zati honetan, baita kasuak kasu aplikatu beharreko adierazleak eta horiek neurtzeko aldizkotasuna ere.

Ingurumen-hezkuntzako eta naturaren interpretaziorako planak egitea. Jarduera hau gauzatzeko egin beharreko jardunak bi urtean behin kontrolatuko dira, eta horrela egingo da jarduera honen jarraipena. Jardun-programan aurreikusten den 7 zonetarako egingo da.

Hiri-hondartzetako erabilera publikoko planak egitea eta gauzatzea. Bi urtean behin egingo da azpiprograma honetan sartzen diren 34 hondartzetako bakoitzeko erabilera publikoko planak abian jartzeari buruzko txostena.

Itsasertzaz baliatzeko eta gozatzeko interpretazio-ibilbideen ekipamendua. Jardunen azpiprograma hau ikuskatzeko, prestatutako ibilbideen luzera kontrolatuko da. Horretarako, urtean behin jakinaraziko da zer administrazio-jarduni jarraitzen zaion azpiprograma honen jarduerak egitean. Jardunen bat aurreikusi deneko zortzi zonetako bakoitzerako jakinaraziko da.

6.3.8 Jardun-programan biltzen diren ikerketa zientifikoko jardunen garapena.

Ikerketa zientifikoko jardunen jarraipena egiteko, berriz, jardunen azpiprograman aurreikusten diren azterlanak gauzatzeko administrazio-jarduerak kontrolatuko dira. Egindako azterlanen kopurua erabiliko da adierazle gisa.

6.4 Parametro kuantifikatzaileetarako erreferentziazko edo mugako mailak ezartzea

Plan honen ezaugarri bereziak direla eta, ez da muga mailarik ezarri; edonola ere, Jardun Planaren jardueretarako honako erreferentziazko mailak ezarri dira.

Itsas-lehorreko jabari publikoaren mugapenak onartzea. Euskal kostalde osoaren mugapenak 4 urteko epean onartuko dira behin-behineko eta 6 urteko epean behin betiko.

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 51. artikulua araberako ingurumen arloko zona sentikorren mugapena. Plan honetan ingurumen arloko zona sentikorren katalogoan sartzeko definitutako unitateen % 80, gutxienez, txertatu beharko da katalogo horretan. Gehienez 2 urteko epean egin beharko da katalogo hori.

Euskal Autonomia Erkidegoko arazketa eta saneamendu arloko koordinaziorako Zuzendaritza Plana idaztea. Plan Zuzentzaileak gehienez 2 urteko epean egon beharko du diseinatuta, eta gehienez 4 urteko epean egon beharko du onartuta.

Hondakin-uren araztegien eraikuntza. Azpiprograma honetan definitzen diren jardunek gehienez 2 urteko epean egon beharko dute idatzita, gehienez 3 urteko epean egon beharko dute gauzatzen, eta gehienez 5 urteko epean egon beharko dute zerbitzuan.

Lurraldearen Antolamendurako Arteztarauen 3. Eranskineko interes naturalistikoko eremuak udal-plangintzan barne hartzea. Ez da erreferentziazko mailarik ezartzen, udal-plangintzako berraztertzeen gaineko ziurgabetasunak direla eta.

Baliabide naturalak antolatzeke plana idaztea eta espazioak Euskal Autonomia Erkidegoko espazio babestuen sarean sartzea. Proposatutako hiru espazioetako, gutxienez, baliabide naturalak antolatzeke planek 3 urteko gehieneko epean egon beharko dute idatzita.

Estuarioetako espazio degradatuak leheneratzea. Aurreikusitako 6 espazioetako hirutarako, gutxienez, egon beharko dute proiektuak idatzita 3 urteko gehieneko epean. Proiektu horien obren kontratazioa 4 urteko gehieneko epean egingo da.

Hondartza eta kostaldeko zona degradatuak leheneratzea. Aurreko kasuan bezalaxe, zonen % 50i, gutxienez, dagozkion proiektuak idatzita egon beharko dute 3 urteko gehieneko epean, eta zona horiek gauatzeko lanei gehienez 4 urteko epean ekin beharko zaie.

Landare-estaldura leheneratzea eta kontserbatzea. Jardun-programan finkatutako zonen % 50i, gutxienez, dagozkion proiektuak idatzita egon beharko dute 3 urteko gehieneko epean. Proiektu horiek gauatzeko lanei gehienez 4 urteko epean ekin beharko zaie.

Ingurumen-hezkuntzako eta naturaren interpretaziorako planak egitea. Jardun-programan finkatutako 7 zonei dagozkien planak gehienez 2 urteko epean hasi beharko dira lantzen. Bestalde, planak 4 urteko gehieneko epean jarri beharko dira abian hiru zonatarako, gutxienez. Gehienez 5 urteko epean jarri beharko dira guztiak abian.

Hiri-hondartzetako erabilera publikoko planak egitea eta gauatztea. Planen % 50 3 urte baino lehen egon beharko du idatzita, % 75 4 urte baino lehen, eta % 100 5 urteren buruan. Planak idatzi eta gehienez 2 urtetara hasi beharko dira aplikatzen.

Itsasertzaz baliatzeko eta goatzeko interpretazio-ibilbideen ekipamendua. Jardunen azpiprograma honetako proiektuek gehienez 3 urteko epean egon beharko dute idatzita, eta gehienez 5 urteko epean zabaldu beharko dira.

Jardun-programan biltzen diren ikerketa zientifikoko jardunen garapena. 2 urteko gehieneko epean egon beharko du kontratatuta azpiprograma honetan barne hartzen diren azterlanen % 60k gutxienez. Gehienez 4 urteko epean lortu beharko da % 100a.